



LETREN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE LETRAS

# **ZORNOTZAKO HIZKERAREN KOKAPEN LINGUISTIKOAZ: LEHEN HURBILKETA**

Nerea Lizaso Apraiz

Euskal Ikasketak 2020-2021 / Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tutorea: Eneko Zuloaga San Román

## LABURPENA

Lan honen helburua euskal dialektologian somatzen den hutsune bat betetzea da, Zornotzako hizkeraren kokapen linguistikoa aztertzea, alegia. Zenbait adituk hizkeraren kokapen lektala zehaztu duten arren, ez dago azterketa sakonik tokiko hizkerak Bizkaiko erdialdean duen kokaguneaz, eta lan honek hurbilketa izan nahi du. Azpimarratzekoa da, gainera, Zornotzako auzoen artean aldakortasuna dagoela baieztatu izan dela; eta, beraz, arretaz aztertu beharreko kontua dela.

Jakina da zenbait ikerketa-ildo daudela dialektologia-lanak egiteko. Dialektologia kualitatiboan oinarritutako azterketa da hau, hots, ez diet hizkuntza-ezaugarri guztiei balio bera aitortu. Mendebaleko euskarari buruzko lanak eta Caminok (2004) zehaztutako irizpideak aintzat hartuz, hamaika hizkuntza-ezaugarri hautatu ditut: zortzi fonetika eta fonologiari loturikoak, eta hiru morfologiari loturikoak. Ondorengoak dira ezaugarriak:  $e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea,  $-o + -a > -ua$  erdiko bokalaren igotzea,  $a \rightarrow e / \{i/u\}(C)\_$ ,  $-au- > -eu-$ , asimilazio bustidura, *joanen* adizkietan  $-i-$  tartekatzea,  $\langle j \rangle$ -ren ebakerak,  $/i + a, e, o/$  arteko epentesia, sozietiboko markak, hurbiltze-adlatiboa eta \**edun*-en 3. pertsonako NORK pluralgilea.

Ezaugarriok hautatzeaz gain, auzoak eta hiztunak ere aukeratu behar izan ditut. Isoglosen kokapena aztertzeko egokienak direlakoan, hurrengo zortzi auzoak aztertu ditut: Berna, San Antonio, San Migel, herrigunea, Etxano, Autzagane, Boroa eta Aldana. Hiztunei dagokienez, 18 adineko pertsona hautatu ditut; emakumezkoak, ahal izan dudan heinean. Grabaketak ahotsak.eus webgunekoak eta Zelaietaren (1990) lanekoak dira, baita nik neuk grabatutako pare bat ere.

Ezin da ahaztu, baina, hizkerak ez direla entitate isolatu bat, sare edo egitura orokorragoetan kokatzen diren egoera linguistikoak baizik. Hau dela eta, isoglosek hartzen duten norabidea ikusteko, inguruko eskualdeetako hizkerak ere aztertu ditut: Txorierriko, Arratiako, Durangaldeko eta Busturialdeko hizkerak.

Azterketa honek zenbait isoglosak Zornotza zeharkatzen dutela erakutsi du, baita isoglosak marra gotorrak ez direla ere. Era berean, auzoen arteko aldakortasuna frogatu da. Gainera, inguruko eskualdeetako hizkerak aldakortasunean eragina dutela ondorioztatu dut: Zornotzako iparraldeko auzoak linguistikoki hurbilago daude sartaldeko hizkera mugakideetatik, eta hegoaldekoak sortaldekoetatik. Zornotza bere

osotasunean hartuz eta ezaugarri esanguratsuenei erreparatuz, sartaldearekiko hurbiltasun handiagoa duela ikusi da.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera eta helburuen aurkezpena .....	6
2. Atal teoriko-metodologikoa .....	6
2.1. Dialektologia .....	6
2.2. Ikerketa-ildoak .....	7
2.3. Zornotza .....	9
2.4. Aurrekariak .....	10
2.5. Ezaugarri linguistikoen hautua .....	15
2.6. Metodologia .....	18
3. Datuen azterketa .....	20
3.1. Zornotza barneko aldakortasuna .....	20
3.1.1. Fonetika eta fonologia .....	20
3.1.1.1. $e \rightarrow i / \_V$ bokal igotzea .....	20
3.1.1.2. $-o + -a > -ua$ erdiko bokalaren igotzea .....	21
3.1.1.3. $a \rightarrow e / \{i/u\}(C)\_$ .....	23
3.1.1.4. $-au- > -eu-$ .....	26
3.1.1.5. Asimilazio bustidura .....	26
3.1.1.6. <i>Joan</i> en adizkietan $-i-$ .....	27
3.1.1.7. <j>-ren ebakerak .....	28
3.1.1.8. $/i + a, e, o/$ artean [dž] epentetikoa .....	29
3.1.2. Morfologia .....	29
3.1.2.1. Soziatiboko markak .....	29
3.1.2.2. Hurbiltze-adlatiboa.....	30

3.1.2.3. *Edun-en 3. pertsonako NORK pluralgilea .....	30
3.1.3. Zornotzako bariazio diatopikoa: laburpena .....	32
3.2. Zornotza vs inguruko eskualdeak .....	33
3.2.1 Fonetika eta fonologia .....	33
3.2.1.1. $e \rightarrow i/_V$ bokal igotzea .....	33
3.2.1.2. $-o + -a > -ua$ erdiko bokalaren igotzea .....	34
3.2.1.3. $a \rightarrow e / \{i/u\}(C)_$ .....	34
3.2.1.4. $-au- > -eu-$ .....	35
3.2.1.5. Asimilazio bustidura .....	36
3.2.1.6. Joanen adizkietan $-i-$ .....	36
3.2.1.7. $\langle j \rangle$ -ren ebakerak .....	36
3.2.1.8. $/i + a, e, o/$ artean [dž] epentetikoa .....	37
3.2.2. Morfologia .....	37
3.2.2.1. Soziatiboko markak .....	37
3.2.2.2. Hurbiltze-adlatiboa .....	38
3.2.2.3. *Edun-en 3. pertsonako NORK pluralgilea .....	38
3.2.3. Zornotza inguruko eskualdeen bariazio diatopikoa: laburpena .....	39
4. Eztabaidarako gaiak eta ondorioak .....	41
5. Bibliografia .....	43
5.1. Bibliografia .....	43
5.2. Webguneak .....	45
6. Eranskinak .....	46

## **1. SARRERA ETA HELBURUEN AURKEZPENA**

Lan honetan Zornotzako hizkera aztertuko da. Arrazoi ugari egon daiteke hizkera baten azterketa egiteko (Francis 1983: 7). Kasu honetan, bada, arrazoi nagusietako bat da euskal dialektologian somatzen den hutsune bat betetzea. Ikusiko denez, Zornotzako hizkeraren kokapen lekalaz mintzatu dira sarri adituak; baina, ez da gehiegi egin hizkera arretaz aztertze aldera. Isoglosa zenbait udalerrian koka daitezkeelako ustea ere egon izan da, zenbait aditu auzoen arteko aldakortasuna dagoelakoan baitaude. Gainera, ezin da ahaztu Zuazok (2014, 2017) *tarteko hizkeratzat* jo duela Bizkai erdialdekoa.

Lan honetan ondorengo bi galderei erantzuten saiatuko naiz: euskara berezia eta bereizialdu du Zornotzak eta, horrenbestez, eremu linguistiko homogeneousat jo daiteke Zornotza? Nola kokatzen da Zornotza Bizkai erdialdeko (eta, bereziki, Bizkai sartaldeko eta sortaldeko) isoglosa bereizgarrien sarean? Era honetan, auzo bakoitza bi azpieuskalkietako batera (sartaldekora edo sortaldekoa) gehiago hurbiltzen den ikusiko da, baita isoglosek Zornotzan hartzen duten kokapena ere.

Hasteko, dialektologiaz mintzatuko naiz, eta hizkerak aztertzeko dauden ikerketa-ildo nagusiak aurkeztuko ditut. Hautatuko dudan ikerketa-ildo zehaztu ondotik, Zornotzari buruzko informazio orokorra emango dut. Jarraian, adituek Zornotzako hizkerari emandako kokapen lektala izango dut mintzagai. Behin hori azalduta, aztertuko ditudan ezaugarri linguistikoak zehaztuko dut, aproposak direla frogatuaz batera. Azterketan erabilitako metodologiaz arituko naiz azterketarekin hasi aurretik. Gero, ezaugarrien eta hedaduraren azterketari eta konparazioari ekingo diot. Lehenik, Zornotza barneko aldakortasuna azalduko dut, eta ondoren, inguruko eskualdeekin alderatuko ditut emaitzak. Bukatzeko, ondorioak azalduko ditut, hurrengo ikerketetarako zenbait proposamen aipatzearekin batera. Esan gabe doa lanaren bukaeran bibliografiaren eta eranskinen atala aurkitzen dela.

## **2. ATAL TEORIKO-METODOLOGIKOA**

### **2.1. DIALEKTOLOGIA**

Dialektologia zer den definitzen hasi aurretik, garrantzitsua da dialekto bat zer den azaltzea. Ondorengo dio Coseriu (1957): “No son *cosas* sino *abstracciones*, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiformidad del habla”. Oinarrizko beste kontzeptu bat definitu behar da, beraz: *isoglosa*. Desberdintasunaren adierazle da

isoglosa. Hala ere, Francisek (1983: 5) adierazten du kontzeptu abstraktu bat bezala ulertu beharreko zerbait dela. Beste era batera esanda, argi izan behar dugu ez direla alde bakoitzean forma bereizi bi biltzen dituzten lerro zurrinak. Behin hau azalduta, ondorengo dio Caminok (1998) dialektologiaz:

Baina dialektologiaren funtsezko ikerbidea, hizkeren ezaugarrien deskribapena oinarritzat -ez, ordea, helburutzat- harturik, hizkera edo dialekto baten kokapenaz, sailkapenaz eta beste hizkerekiko alderaketaz jardutea da, hizkera horrek beste hizkerekiko zein konbergentzia eta dibergentzia maila duen neurtzea hain zuzen ere; hizkerak beren artean nola egituratzen eta erlazionatzen diren jakitea da gure xedea. (Camino 1998: 112)

## **2.2. IKERKETA-ILDOAK**

XXI. mendearen hasieran, Caminok (2004) ikuspegi orokorra eman zuen euskal dialektologia garaikidearen ikerketa-ildoez. Haren esanetan, orain gutxira arte egindako dialektologia-lanak, salbuespenak salbuespen, atomistak ziren. Beste era batera esanda, herri jakin bateko hizkera bere horretan deskribatzen zuten, hizkera horiek ingurukoekin loturarik izango ez balute bezala. Lan horien garrantzia azpimarratu zuen arren, dialektologia kontrastibora jo beharra azpimarratu zuen.

Dialektologia kontrastiboan, inguruko hizkerak aintzat hartzen dira hizkera jakin baten loturak ezagutzeko, etenik dagoen ikusteko (eta, egotekotan, zer-nolakoa den zehazteko), baita dinamika linguistikoen norabideak argitzeko ere. Izan ere, hizkerak ez dira entitate isolatu bat, sare edo egitura orokorragoetan kokatzen diren egoera linguistikoak baizik. Inguruko hizkerak kontuan hartzeak eta konparazio-lanak bide ematen diote ikertzaileari eremu jakin bateko egitura geolinguistikoa ezagutzeko, eta aztergai duen hizkera egitura horretan zein leku duen argitzeko.. Lan honetan, beraz, dialektologia kontrastiboan arituko naiz, hemengo helburua isoglosek Zornotza linguistikoki non kokatzen duten aztertzea baita.

Dialektologia kontrastiboaren arloan ez dago bide bakarra konparazio-lana egiteko. Dialektologia kontrastiboak barne biltzen dituen metodoak ondorengoak dira: dialektologia tradizionala (kualitatiboa) eta dialektologia kuantitatiboa (dialektometria). Aipatu beharra dago, ondoren azalduko den legez, bakoitzak bere alde positiboak eta ahuluneak dituela.

Dialektologia kualitatiboan, ikertzaileek ez diete ezaugarri guztiei garrantzi bera aitortzen: batzuk garrantzitsuagoak iruditzen zaizkie beste batzuk baino, eta horietan jartzen dute indar gehiago, horiek azpimarratzen dituzte haien ikerketetan. Ondorengo

adierazten du Venyk (1992: 205): “No todas las isoglosas poseen el mismo valor, sino que existe una valoración cualitativa de las mismas”. Dialektometriaren aldelea den Aurrekoetxeak (2006) ondorengo adierazpena egiten du:

Hautaketa horrek oinarri sendoak izan ohi ditu ikusmolde filologikotik begiratur, hizkuntzaren bilakaera kontuan izaten baita. Baina aukeraketa subjektiboa denez, arriskua izaten du ikertzaileari komeni zaionaren edo ezagutzen duenaren edo eremuak erraz marrazteko baliagarri zaizkionaren arabera egiteko. (Aurrekoetxea 2006: 120)

Beherago azalduko den legez, lotura linguistikoak aztertzeke, berrikuntza sistematiko eksklusiboak lehenetsi ohi dituzte dialektologia kualitatiboan ari direnek. Izan ere, Caminoren (2008: 212) esanetan, “dialektoaz mintzatzeko baitezpadako dira berrikuntzak; ez baldin badago berrikuntzarik, ezin mintzatu gara dialektoaz”. Nahiz eta muga linguistikoak irudikatzeko garrantzi handiagoa aitortzen zaien ezaugarriak baliatu, auzia ez da beti erraza: “Euskaraz, konbergentzia gehien gertatzen den eremuetan, erdiguneko hizkeretan, zail da geografia-eremu berera biltzen diren ezaugarri eksklusibo sistematikoak argi bereiztea eta, ondorioz, isoglosa sorta gotorrek aurkitzea: ez da lan erraza” (Camino 2004: 81). Dialektometriak eta dialektologia kuantitatiboak tasun sailkatzaileen hautuaren arazoa saihesten duela azaltzen du Caminok (2004), ezaugarri guztiei garrantzi bera aitortzen baitzaie. Alegia, ezaugarri guztiei ematen zaie balio bera: berdin balio du berrikuntza zahar eksklusibo batek, uharteak eratzen dituen arkaismo batek eta azken orduko berrikuntza beregain batek, adibidez. Esan beharra dago, baina, ondorengo ahulunea aipatzen duela Caminok (2004): “nekez asma dezake bi hizkeraren arteko berdintasun edo urruntasun estrukturalaren berri ematen” (Camino 2004: 87).

Lan honetan, dialektologia kualitatiboan arituko naiz, ezaugarrien nolakotasuna haztatu beharra sinesten baitut. Ez dut uste ezaugarri linguistiko guztiak, aldaera fonologiko bat eta aldaera lexiko bat esaterako, maila berean daudenik. Horrez gain, hizkuntzalaritza historiko-konparatistaren tradizioak irizpide kualitatiboen sendotasuna eta adostasuna erakutsi izanak, horren alde egitera bultzatu nau.

Metodo honetan, ikertzaileak irizpide eta helburu jakinak dituelarik, hizkuntza-osagaien hautua gauzatu behar du lehenengo. Berdintasuna islatzen duten ezaugarriak garrantzitsuak dira, hedadura eta konbergentzia adierazten baitituzte. Hala ere, arestian azaldu legez, desberdintasuna islatzen duten ezaugarrietan jarri ohi da arreta handiena. Kasu honetan ere horiek hartuko ditut aintzat, bi azpi-euskalkiren artean dagoen eremu bat aztertuko dudalako. Lan honen xedea Zornotzako euskararen kokagunea aztertzea da,



Bizkai sartalde eta sortaldeko azpi-euskalkien artean. Zuazok (2014) tarteko hizkera bezala definitzen duena. Zuloagak (2016: 8) dioenez, Zornotza “udalerrri zabala da, hainbat auzo sakabanatu dituena, eta sailkapen dialektaletan udal-barrutia unitate geografiko gisa erabiltzea arazo-iturri izan ohi da”. Hori dela eta, Bizkaia ezker/eskuin eta goi/behe banatzen dituzten isoglosak aztertuko ditut, isoglosok Zornotzan noraino iristen diren ikertuz.

### 2.3. ZORNOTZA

Lehenik eta behin, irakurlea kokatze aldera, garrantzitsua da *Zornotza* izenaren historia labur azaltzea; izan ere, izen horrekin ezagutu dena ez da beti eremu bera izan (Sesmero 1993: 11). *Zornotza* Amorebieta, Etxano eta Ibarri elizateak biltzen zituen merindadearen izena zen (Monreal 1973: 158). Nahiz eta Amorebietaren eta Etxanoren bilkuratik *Amorebieta-Etxano* izen ofiziala onartu, egungo herriaren izen ofiziala *Zornotza* ere bada. Lan honetan, beraz, *Zornotza* hitza agertzen den bakoitzean, *Amorebieta-Etxano* bezala ere ezagutzen den eremuari egingo zaio erreferentzia. Etxanok egun hartzen duen eremua ere ez da bera; beraz, *Etxano* aipatzen dudana bakoitzean, gaur egun hartzen duen eremuaz ari naiz; azpiko mapan ikus daitekeenaz, zehazki:



1. irudia. Zornotzako mapa.<sup>1</sup> Iturria: <https://www.ametx.eus>

Zornotza Bizkaiko erdialdean kokatzen da, Durangaldea, Arratia, Txorierra eta Busturialdea eskualdeen artean. Ondorengo herriak ditu mugakide:

- Ipar-ekialdean Muxika (Busturialdea)
- Hego-ekialdean Iurreta eta Durango (Durangaldea)

<sup>1</sup> Lanean zehar aipatuko ditudan auzoen hedadura zehazteko mapa hau hartu dut oinarri.

- Hegoaldean Dima (Arratia)
- Ipar-mendebaldean Larrabetzu (Txorierri)
- Hego-mendebaldean Lemoa (Arratia)
- Mendebaldean Galdakao (Arratia eta Txorierri artean)



2. irudia. Zornotzaren kokagunea. Iturria: Wikipedia

Egun, Amorebieta, Zornotzako elizaldea, da buru; eta biztanleen % 86 hor bizi da. Gainerako biztanleak udalerrian sakabanaturik dauden auzoetan bizi dira. Soziolinguistika Klusterrak 2011n egindako azterketaren arabera, herritarren % 52,9 euskalduna da, eta % 22,7 ia euskalduna. Soziolinguistika Klusterrak 2013an egindako euskararen erabileraren kale-neurketan erabilera % 23koa zela islatzen zuten datuek.

## 2.4. AURREKARIAK


Zornotza herri zabala da, eta esanguratsua izan daiteke, ikuspegi linguistikotik, Bizkaia ezker-eskuin edo goi-behe zatitzen duten ezaugarriei dagokienez; hala ere, ez dago azterketa zabalik edo sistematikorik tokiko hizkerak Bizkaiko Erdialdean duen kokaguneaz. Ondorengo lerroetan Zornotzako hizkeraz esan dena azalduko dut, batik bat zenbait ikertzailek eman dioten kokapen lektalaz proposatu direnak.

Bonapartek (1863-1869) zortzi euskalki bereizi zituen eta Zornotza bizkaieraren barnean kokatu zuen; zehazki bizkaieraren mendebaleko azpi-euskalkian. Bonaparteren ildotik, Yrizarrek (1992: 237) Zornotzako hizkera Gernikako aldaeraren barnean kokatu zuen. 1970eko datuekin egin zuen sailkapena, eta garai hartan 36.200 hiztun inguru zituen aldaera horrek. Gernikako aldaera beste hiru azpialdaeratan zatitu zuen: azpialdaera

propioa (23.200 hiztun), Durangaldeko azpialdaera (12.960 hiztun) eta Arabako azpialdaera (40 hiztun). Zornotza sailkatzerako orduan, ez zuen osoki hiruretako batean sartu. Bernagoitia auzoa (160 euskaldun) Durangaldekoan sartu zuen, eta gainerakoa azpialdaera propioan (6.100 euskaldun).




3. irudia: Zornotzaren kokapen lektala. Iturria: Yrizar (1992: 241)




4. irudia: Bernagoitia auzoaren kokapen lektala. Iturria: Yrizar (1992: 319)


Aurrekoetxeak (1995) Zornotzako Euba auzoa hartu zuen inkesta-gune bere doktorego-tesian, eta hiru mozketak aurkeztu zituen. Lehenengo bi eremutan zatitzen da Bizkaia, mendebaldeko hizkerak alde batetik, eta erdi eta ekialdekoak bestetik (Aurrekoetxea 1995: 284). Euba aipaturiko bigarrenean kokatzen du. Ondoren 3 eremutan banatzen da Bizkaia, eta Euba *eremu zentrala* izendatzen duen erdiko gunean kokatzen du (Aurrekoetxea 1995: 286). Azkenik, bost eremutan banatzen du Bizkaia. Aurrez izendatutako *eremu zentrala* bi zatitan zatitzen du honetan, eta oso irudi zatikatua agertzen dela dio (Aurrekoetxeak 1995: 288). Gipuzkoako Deba Garaia eta Bizkaiko hurbilen dituzten hizkerak osatzen dute talde hau. Gune honetatik at binaka biltzen dira hizkerak, eta horien artean Eubakoa: Ibarurirekin batera erdialdean kokatzen da.



5. **irudia.** Banaketa 2 eremutan. Iturria: Aurrekoetxea (1995: 283)



6. **irudia.** Banaketa 3 eremutan. Iturria: Aurrekoetxea (1995: 285)



7. **irudia.** Banaketa 5 eremutan. Iturria: Aurrekoetxea (1995: 287)

Gamindek (2007: 253-256) ere Bizkaiko hizkerak ikuspegi kualitatibotik aztertu zituen. Bi multzo nagusi bereizi zituen: mendebaldekoa eta ekialdekoa. Hala ere, aipatu zuen Otxandio-Ubide sailkatzea ez dela erreza. Zornotza ekialdekoan kokatzen du. Ondorengo mapan, gorriz Otxandio-Ubideko hizkera dago, urdin-morez mendebaldekoak eta berdez ekialdekoak (Gaminde 2007: 256):



8. irudia: Zornotzaren kokapen lektala. Iturria: Gaminde (2007: 256)

Nabarmentzekoa da, hurrengo lerroetan zehatzago azalduko dudanez, Zornotzako hizkera aztertu duten ikertzaileek auzoen arteko aldakortasun handia ikusten dutela.

Zelaietak (1990), Zornotzako aditz sistema aztertzean, erabateko batasunik ez dagoela adierazten du ondorengo adierazpenarekin:

Esan beharra dago, Zornotzan erabiltzen den aditz sistema nahiko antzerakoa bada ere, ez dela guztiz homogeneoa; izan ere, badaude udalerrian bertan toki batetik besterako ezberdintasunak. (Zelaieta 1990:13)

Ildo beretik, *Amorebieta-Etxanoko hiztegi etnografikoari* erreparatuz gero, auzoen arteko aldakortasuna baieztatzen du Etxebarriak (2009). Adibide batekin hobeto ulertuko delakoan, azentuaren deskribapena egiten denean, Etxanoko eta mendebaldeko (San Bartolome, Boroa eta Aldana) hizkerak azaltzen ditu alde batetik, eta sortaldekoak<sup>2</sup> bestetik.

XXI. mendearen hasierako dialektologia-ikerketen artean, Zuazok (2014: 77) mendebaldeko hizkera azpieuskalki bitan zatitzen du: sartaldekoa eta sortaldekoa. Horien erdian, tarteko hizkera bi ageri dira: Busturialdekoa eta Otxandiokoa. Zornotza trantsizio hizkera horietako bat dela azaltzen digu Zuazok, eta hizkerok azpieuskalki bien arteko

---

<sup>2</sup> Azentua azaltzerakoan ez du sortaldeko zein auzoren inguruan ari den zehazten.

lotura egiten dutela esaten du; beraz, muga zurruna Arratiaren eta Durangaldearen artean irudikatzen du (Zuazo 2014: 180).



9. irudia: Mendebaleko euskalkiaren mapa. Iturria: <http://euskalkiak.eus/>

Historiari dagokionez, Zuazoren ustez, Durango-Zornotza-Gernika-Bermeo ardatza izan zitekeen berrikuntza zahar esanguratsuen sorlekua (Zuazo 2014: 55). Eremua zehatzago aztertzean, dena den, Zuazok unitate ia homogeneousat jotzen du Zornotza, ez baitu zehazki aipatzen Zornotzako auzoen arteko aldakortasuna. Hala ere, zenbait aipuk ulertzeraz ematen dute Zuazok ere aurretik beste ikertzaile batzuek aipatutako aldagarritasuna baieztatzen duela: “Zornotzan [x] da ohikoena baina  $dx$ - ere ezaguna da” (Zuazo 2017: 76). Zuazok *Euskalkiak* (2014) lanean mendebaleko hizkeraz esandakoa berresten du *Mendebaleko euskara* (2017) lanean, nahiz eta azken horretan zehaztapen gehiago dakartzan. Izan ere, mendebaldean zazpi hizkera bereizten ditu, eta Zornotza Busturialdekoan sailkatzen du:

*Busturialdekoa*. 20 herrik osatzen dute eta, ez da denetan egiten euskara bera. Lau eremu bereiz daitezke. Alde batetik, itsasbazterra eta barrualdea; bestetik, mendebala eta ekialdea [...] a) mendebaleko itsasbazterra; b) ekialdeko itsasbazterra; c) mendebaleko barrualdea eta d) ekialdeko barrualdea. [...] Eremu honen barruan dago Zornotza. (Zuazo 2017: 97-99)

Zuloagaren (2016: 8) adierazpena ere ez dago urruti aurreko ikertzaileen iritzitik: “Udalerri zabala da [Zornotza], hainbat auzo sakabanatu dituena, eta sailkapen dialektaletan udal-barrutia unitate geografiko gisa erabiltzea arazo-iturri izan ohi da”.

Argi ikusten da, beraz, Zornotzako hizkera aztertzean, bi alderdi aztertu behar direla. Alde batetik, Zornotza udalerri zabalaren barruan dauden aldaketa eta eten linguistikoak. Beste alde batetik, Zornotzako auzoek eremu mugakideetako hizkerekin dituzten loturak. Yrizarren (1992) sailkapena berreskuratuz, udalerriok aldaera hauekin lotzen ditu:

- Ipar-ekialdea Gernikako aldaerarekin (azpialdaera propioa)
- Hego-ekialdea Gernikako aldaerarekin (Durangaldeko aldaera)
- Hegoaldea, hego-mendebaldea eta mendebaldea Arratiako aldaerarekin (aldaera propioa)
- Ipar-mendebaldea Arratiako aldaerarekin (iparraldeko aldaera)

Hau kontuan izanik, lan honetan auzokako aldakortasuna eta aldaketa linguistikoak aztertuko ditut, ondorengo auzoak aztergai hartuta: Berna, San Antonio, San Migel, herrigunea, Etxano, Autzagane, Boroa eta Aldana.

## **2.5. EZAUGARRI LINGUISTIKOEN HAUTUA**

Mendebaleko euskarari buruzko bibliografia eta lan monografiko nagusiak (Bonaparte 1863-1869; Zelaieta 1990; Yrizar 1992; Gaminde 2007; Etxebarria 2009; Zuazo 2014, 2017; Zuloaga 2016 eta EHHA) begiraturaz, eta nik tokiko euskaraz dudak jakintza baliatuta hautatu ditut ezaugarriak. Behin etenak eta loturak finkatzeko hizkuntza-ezaugarri baliagarriak zein diren jakinda, lanerako egokienak hautatu behar dira. Gehien laguntzen duten ezaugarriak bereizteko eta sailkatzeko ondorengo irizpideak proposatzen ditu Caminok (2004) aurretik aipatutako lanean:

- i. Esklusibotasuna: ezaugarriak hizkera bakar batekoak diren. Garrantzitsuak dira ezaugarri eskusiboak. Batzuetan, ezaugarri eskusibo gutxi dituen hizkera sailkatzea zaila izan daiteke. Horregatik, ikuspegi malguago batekin uler daiteke eskusibotasuna; ezaugarrien konbinazioan aurki daiteke, hain zuzen ere.
- ii. Geografiaren iragazkia: aztertu beharrekoa da ea ezaugarri banatzaileak diren ala ez, hizkeraren eremu guztian ageri diren ala ez. Banatzaileak, bateratzaileen garrantzia ukatu gabe, dira garrantzitsuenak.
- iii. Hizkuntza-ezaugarrien hedaduraren zabaltasuna: ikertzaileak aztertu behar du ea ezaugarriak eskualde askotan ageri diren, eremu zabalekoak diren ala eremu murriztekoak diren. Oro har, eremu zabaleko ezaugarriak dira garrantzitsuenak. Hala ere, aipatu beharra dago, ibar bateko euskara aztertzea bada helburua, eremu txikiagoko ezaugarriak baliagarriak izan daitezkeela.
- iv. Berrikuntzak, arkaismoak ala hautuak diren. Ez da gauza bera berrikuntzekin soilik gauzatzea azterketa, edo arkaismoak ere aztergai izatea. Tradizioz, bai hizkuntzalaritza historiko-konparatistan, bai dialektologian berrikuntzak lehenetsi

dira ia guztiz. Hala ere, arkaismoen azterketatik ere ondorio sendoak atera daitezke, esanguratsua izan baitaiteke, adibidez, ondoan dauden bi hizkeren berrikuntza bat jaso edo hartu ez izana, eta gainerako guztiek bai. Arkaismoak aintzat hartzekotan adierazi beharra dago, eta horien erabilera arreta handiz egin, nahasgarri izan baitaitezke.

- v. Kronologiaren baldintza: ea datuak garaikideak diren edo aldi desberdinetako datuak (adibidez, hainbat garaitako testuetakoak edo adin ezberdinetako hiztunenak) diren jakitea garrantzitsua da. Ezaugarrien kronologiaren ezagutza izateak ere laguntzen du.
- vi. Ezaugarrien sistematikotasuna. Ea emankorrak diren ala fosilduta gelditutako ezaugarriak diren. Sistematikotasuna aintzat hartzea oso garrantzitsua da. Hala ere, eskualdeen azterketetan, baldintza malgutzea posible da. Adibidez, desberdintasun-maila sakonik ez duten ondoko bi hizkera alderatzen direnean, sistematikoak ez diren ezaugarriak aintzat har daitezke. Oro har, hobesten diren ezaugarriak sistematikoak direnez, fonologia eta morfosintaxia izaten dira gramatika atalik aztertuenak. Izan ere, fonetika eta lexikoa ez dira horren emankorrak (aldakortasun handiagoa dutenez, ezin hainbesteko sistematizaziorik itxaron).
- vii. Datuen fidagarritasuna: ikertzaileak ziurtasunez jakin behar du aztertuko diren ezaugarriak benetan direla hizkera horretakoak. Horretarako, hiztun aproposak hautatu behar ditu. Gainera, beherago azalduko den behatzailearen paradoxa (Labov 1972) ere kontuan izan behar da datu fidagarriak lortzeko.

Irakurritako bibliografiatik eta nik dudan ezagutzatik, ondorengo hauek dira interesgarriak direlakoan erazutako ezaugarriak:

1. Egungo euskararen hizkeretan arrunta da  $e \rightarrow i / \_V$  bokal-igotzea: aldakortasun handiko bilakabidea da, eta eremu txikian dialektologia egiteko baliagarria. Mendebalari dagokionez,  $a + a > ea$  disimilazioaren ondotik eta  $e + a$  eta  $e + e$  bilkuretan gertatzen dena. Lan honetan bokal-igotze hori aztertuko dut. EHHako 1027. mapan<sup>3</sup> ikus daitekeenez, bokal-igotzea arrunt eta zabal dabil mendebalean ere.

---

<sup>3</sup> EHHako mapak eranskinetan ikus daitezke.



2. *-o + -a > -ua* erdiko bokalaren igotzea gertakari arrunta da, eta EHHako 1067ko mapan ikusten denez, hizkera askotan gertatzen da Euskal Herrian barrena<sup>4</sup>. Kasu honetan, garrantzitsua da sartaldea eta sortaldea bereizteko ezaugarri baliagarria baita. Bizkaiko sortaldean egiten da, baina sartaldean ez (Zuazo 2017: 71). Zuloagak (2016: 8) baieztatzen du Zornotzan auzoen araberako aldakortasuna dagoela, eta beraz, azterketarako ezaugarri esanguratsua da.
3. Beheko bokalaren asimilazioa,  $a \rightarrow e / \{^i/u\}$ ). Ezaugarri hau Hego Euskal Herrian zehar ikustea ez da arraroa, Zuazok (2014: 266) adierazten duenez. Azpimarratu beharra dago, baina, toki bakoitzean indartsuagoa dela besteetan baino. Arau hau zein kokagunetan agertzen den aintzat hartuta, hizkera-eredu diferenteak deskribatu zituen J. I. Hualdek (1991) *Basque Phonology* izeneko tesian. Bizkaian arrunta da, baina eremu bakoitzean duen indarrak markatzen du desberdintasuna. Izan ere, Bizkaiko sartaldean indartsuagoa da. (Zuazo 2014: 182)
4. *-au-* diptongoa *-eu-* egiteko joera Bizkaiko eremu zabalean dago, baita Bizkaitik kanpo ere. Hala ere, aipatu beharra dago *-au-* > *-eu-* bilakabidea partizipioetan eta lexemetan gertatzeak eremu txikiagoa hartzen duela. Zuazok (2017: 20) adierazten duenez, *-au-* > *-eu-* egitea Bizkaiko erdialdean sortutako, eta oraintsu samar indartu eta hedatu den berrikuntza izan liteke. Beraz, oraingoan ere, eremu bakoitzean duen indarrak markatzen du desberdintasuna.
5. Asimilazio bustidura [i] bokalak sortutako palatalizazioa da, baita [j] bokalerdiak eragindakoa ere. Ohikoa da Euskal Herriko gune askotan. Fokua Bizkaian jarriz gero, aldiz, ezaugarri banatzailea da. Sortaldean indartsua da, baina sartaldeko gune batean (Txorierri, Arratia, Zeberio, Orozko eta Nerbioi ibarreko hegoaldea) ahula dela nabarmendu beharra dago. Gune hori Zornotzatik hurbil kokatzen da (Zuazo 2014: 270).
6. *Joanen* adizkietan, analogiaz *-i-* tartekatzea Euskal Herriko zenbait tokitan da arrunta. EHHako 1404. mapak erakusten du Nafarroa aldean eta Bizkaian ohikoa dela. Garrantzitsuena da Bizkaia ezker/eskuin zatitzen duela ezaugarriak. Hori da ezaugarri hau lan honetan aztergai hartu izanaren arrazoia.

---

<sup>4</sup>Aldaketa batzuk linguistikoki/tipologikoki arruntak dira. Hain dira arrutak, non beregainki sor baitaitezke leku eta garai desberdinetan (Camino 2008: 218). Hemen hizpide dugun ezaugarria berrikuntza paralelo horren adibidea da. Ondoren datozen ezaugarri batzuk ere Bizkaitik kanpo arruntak dira. Beraz, azalpen hau kontuan hartzea garrantzitsua da.

7. Izenetako eta partizipioetako hitz hasierako <j> modu desberdinetara ahoskatzen da. Euskal Herriko erdialdean, ohikoa da [x] ahoskera, eta berrikuntza hori hedatuz joan da (Zuazo 2017: 74-76). Bizkaiari dagokionez, sartalde gehienez [j] ahoskatzen da, Bizkaiko erdigunean [dž] eta gainerako guneeetan [x]. Zuazok (2017: 76) dio Zornotzan [x] dela ohikoena, baina [dž] ere ezaguna dela.
8. Hizkera batzuetan, *i* eta *a*, *e*, *o* bokalen artean [j]/[x]/[dž] epentesiak sartzea ohikoa da. Euskal Herri mailan nahiko eremu zabala hartzen du ezaugarriak (Zuazo 2014: 219). Bizkaira mugatuz, nahiz eta uharteren bat egon, sartaldean ez da ohikoa. Sortaldean, aldiz, arrunta da (Zuazo 2017: 70-71).
9. Soziatibo marka desberdinak daude Euskal Herrian barrena: *-gaz*, *-ki(n)*, *-kila(n)*. Ezagun da, euskalkiak desberdintzeko baliagarria dela. Areago, Bizkaia bitan zatitzeko ere garrantzitsua da soziatibo marka. Sartaldean *-gaz* dago singularrean eta *-akaz* pluralean. Bizkaiko ekialdean eta erdialdean, berriz, *-gaz* singularrean eta *-kin* pluralean (Zuloaga 2016: 12).
10. Hurbiltze-adlatibo kasu-markaren aldaerak daudela islatzen digu EHHako 1104. mapak: *-rantza/-ru(n)tz(a)*, *izena + aldera*, *-ri buruz*. Lan honetan, aipatzekoa da Bizkaian aurkitzen diren bi aldaerak: *-rantza/-ru(n)tz(a)*. Bizkaiak Gipuzkoarekin duen mugaz bestalde ere agertzen da bigarrena. Nabarmentzekoa da, ordea, Bizkaia bitan zatitzen dutela: *-rantza* sartaldean eta *-ru(n)tz(a)* sartaldean (Zuazo 2017: 39). Durangaldean lehian daude bi aldaerok (Zuloaga 2016: 17), eta, beraz, Zornotza aztertzean aintzat hartzekoa da.
11. \**edun* aditzaren 3. pertsonako pluralgile desberdinak daude: *-de/-te/-e*. Zuloagak (2016: 19), “Trask-en legea” onartuz, hauek jatorrian \**-de* luketela adierazten du, bai eta Bizkai sartaldeko euskararen bereizgarri nagusietako bat dela ere, nahiz eta arkaismoa izan. Azken batean, Bizkaiko sartaldean soilik gorde da *-de* aldaera \**edunen* adizkietan, eta baliagarria da Bizkaia bitan zatitzeko.

## 2.6. METODOLOGIA

Lan honetarako, arestian aipatutako auzoetako hitzunen grabaketak aztertu ditut: <https://ahotsak.eus/amorebieta-etxano/> webgunean azaltzen direnak, Zelaietak (1990) egindako lanean erabilitakoak eta nik neuk grabatutakoak. Garrantzitsua da esatea grabaketa hauetan, hitzunen egoera komunikatibo arrunt bateko hizkera hautemateko, gai jakin baten inguruan hitz egiteko eskatu zaiola. Izan ere, kontuan izan behar da Labovek (1972) esandakoa:

We are then left with the *Observer's Paradox*: the aim of linguistic research in the community must be to find out how people talk when they are not being systematically observed; yet we can only obtain these data by systematic observation. (Labov 1972: 209)

Zelaietak (1990) egindako grabaketetan, amaierako zatian esaldiak euskaratzeko galderak egiten zaizkio hiztunari. Zati hori, behar izan dudanetan, osatzeko baino ez dut erabili, hizketaldi librea lehenetsiz.

Auzo bakoitzeko emaitza fidagarria lortzeko, hiru bat hiztun hartu ditut. Onartu beharra dut, baina, beti ez dela posible izan. Grabaketen kopuru mugatua izan dut, eta herrigunean, esaterako, hiztun bakarraren lekukotasuna baino ez dut izan. Horretaz gain, ahal izan dudan neurrian, auzotik asko mugitu ez diren hiztunak hautatu ditut. Emaitza aberatsagoa izateko, adineko emakumeak hautatzen ere saiatu naiz, ahal izan dudanetan betiere. Izan ere, kulturalki rol desberdinak izan dituzte gizonek eta emakumeek, eta horrek eragina du hizkeran:

Emazteak herriko gizarte-sareei guztiz atxikirik bizi baldin bada, familiako gora-beherei erne eta senideen ardura bere gain harturik badago, etxeko lanengatik edo haurrak hazi eta hezi behar izateagatik etxezulo baldin bada, edo kutsu berririk gabeko tradizioko mintzoa erabiltzen duten guraso zaharrak etxean zaintzen baldin baditu, ez da harritzeko izanen arkaismo gehien emaztekiengandik entzutea. (Camino 2009: 299-300)

Bernako hizkera aztertzeko, aipatutako webgunetik Josebe eta Mila Ibaibarriaga Sarrionandiaren eta Juanita Olariaga Esturoren grabaketak hartu ditut aintzat, oro har. Hiru hiztunak inguruan bizi direnez, Zelaietaren (1990) grabaketetako bat hartu dut aintzat: Bernagoitiko<sup>5</sup> Inazia Alkorta Inza. Honekin, ezaugarriak auzoko beste gune batzuetara ere hedatzen diren ikertu dut. San Antonioren kasuan, webguneko Basilisa Agirre Uranga eta Zelaietaren (1990) grabaketetatik Agustin Euba Ituarterena aztertu ditut. Esan beharra dut, baina, bigarrena osatzeko hartu dudala kontuan, herrigunera ezkondu baitzen. San Migeleko hizkera nolakoa den ikusteko, Tere Irazola Etxebarriren grabaketa (webgunea) eta Maria Luisa Gerediaga Iturriozen grabaketak (Zelaieta 1990) entzun ditut. Hala ere, Bernarekin muga egiten duen gunea hobeto ezagutzeko, Mari Zabala Mendiolaren grabaketa (nik grabatutakoa) ere izan dut kontuan, hizkeraren irudi osatuagoa izateko. Etxanoko hizkeraren nolakotasuna Teodora Gerediaga Gasteluren (webgunea) eta Segunda Agirren Zarrionandiaren (Zelaieta 1990) grabaketetatik aztertu dut. Aipatu dudan legez, herriguneko hiztun baten grabaketa aztertzeko aukera baino ez dut izan, Benita Zearsolo Azkunarena (Zelaieta 1990), hain zuzen. Autzaganeren kasuan, harturiko bi grabaketak Zelaietaren (1990) lanetik hartu ditut: Carmen Dudagoitia

---

<sup>5</sup> Ikusi 11. mapa.

Etxebarriarena eta Candido Uriarte Intxaustirena. Bigarrena osatzeko baino ez dut aintzat hartu; auzoan jaio arren, herrigunera bizitzera joan baitzen gero. Boroako hizkera aztertzeko, nik egindako grabaketa bat izan dut aitzat, Mari Paz Apraiz Aurrekoetxeari egindakoa. Hori osatze aldera, Maria Teresa Larruzea Uriguenen grabaketa (webgunea) hartu dut; hiztun hau Boroan jaio zen, baina Erkolesera ezkondu zen. Azkenik, Aldanako hizkera aztertzeko, Cristina Artabe Etxebarriaren grabaketa (Zelaieta 1990) hartu dut aintzat batez ere, betiere Luis Mari Artabe Zearretarenarekin (Zelaieta 1990) osatuz.

Azterketan zehar agertuko diren transkribapenak Aurrekoetxeak (1997) planteaturiko irizpideak jarraituz egin ditut.

### 3. DATUEN AZTERKETA

#### 3.1. ZORNOTZA BARNEKO ALDAKORTASUNA

##### 3.1.1. Fonetika eta fonologia

###### 3.1.1.1. $e \rightarrow i / \_V$ bokal igotzea

$e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea sistematikoa da auzo guztietan. Ondorengo hiru multzoetan sailkatuko ditut adibideak: jatorrian  $a + a$ ,  $e + a$ , eta  $e + e$  bilkura dutenak.

Lehenengoari dagokionez, ondorengoak dira auzo bakoitzeko adibideak: *Arek be tabernie euki abien* (Berna), *osabie geixorik euki gañun ta osabienien onitzen* (San Antonio), *Bota pelotie goitti bera ta pelotie botaten basañun beste eskuegas buelta emon bier* (San Migel), *Nire alabie eseuen esetuten* (herrigunea), *ama letxerie isen san* (Etxano), *Nebie be eukiuen, nebie be il dxako da oi bakarrik bixi de* (Autzagane), *Gero ankia ebaitte egon san, kangrenia sartute* (Boroa), *Dana eitten san euskeria orduen, dan dana* (Aldana).

Jatorrian  $e + a$  bilkura dutenak ondorengo adibideak dira: *Da gero garidxe suk gurusunien eruen errotara* (Berna), *Maistriren alabie lagun itzela san nirie* (San Antonio), *Bota pelotie goitti bera ta pelotie botaten basañun beste eskuegas buelta emon bier* (San Migel), *Joan san gerrara ta urtebetegarrenien eridute Villarrealen* (herrigunea), *Sartu nintzen nobienbrien lauen edo da eneroan askenetan urten* (Etxano), *Astien baten etorten da ona panaderuen ogidxe artzen* (Autzagane), *Dxaio sanien* (Boroa), *Nire aitte be biarrak ariñeketan eitten sittusen musalditxu bet eitteko illuntzian* (Aldana).

Azkenik, aditzetan ageri diren pluralgile pleonastikoak dira jatorrian *e + e* bilkura duten hitzen adibide: *Arek be tabernie euki abien* (Berna), *Ume txikidxe euki serien* (San Antonio), *Gure etxien dxaki eurien* (San Migel), *Beste dejotxu bet dekie* (herrigunea), *Sarritten kontetan serien* (Etxano), *Taloak be jateuriesan* (Autzagane), *Kartetan da dxoaten gariesenien* (Boroa), *Oiñ gastiak geubes dekie fiestia* (Aldana).

### 3.1.1.2. -o + -a > -ua erdiko bokalaren igotzea

-o + -a > -ua erdiko bokalaren igotzeari dagokionez, ondorengoa adierazten du Zelaietak (1990: 11):


Inguruko lekuko batzuk diotenez, hizkuntza muga etxe batean datza. Hain zuzen ere, *Agria* entpresaren aurrez aurre dagoen etxe batean datza delako muga hori. Etxe horretatik Eubarantz bizi zirenek *banoa*, *bazoaz* esaten zuten bitartean, etxe horretatik Iurretarantz bizi zirenek ordea honako adizki hauek erabiltzen zituzten *joan* aditza orain aldiak jokatzeari; *Ni banue*, *bazuez*. (Zelaieta 1990:11)



10. irudia: *Agria* enpresa. Iturria: <https://www.ametx.eus>


Zelaietak (1990: 15) isoglosaren puntu bat baino ez du adierazten. Labovek ondorengoa adierazten du: “social pressures are continually operating upon language” (1963: 275). Hau aintzat hartuz, ondorioztatu dut ezin dela aipaturiko puntu hori zeharkatzen duen marra zuzen bat egin; izan ere, harremanetan dauden baserri multzoa zatituko luke. Arretaz aztertu beharra dago, beraz.

Bokalen igoera Bernan lekukotzen da, bai mugatzaile singularrari loturik, bai adizkietan: *Astue kargeu bedarras da astueri musturre lotu bedarra bota ez deidxen* (Berna), *Suk gurusunien eru* (Berna). *Agria* fabrikatik eskuinetara dagoen Txosna baserrian lekukotzen da, baita ezkerretara kokatzen den Goienengoa baserrian ere: *Taluek eiñ gureaiñe* (Txosna), *Bedidxakue* (Goienengoa).



11. irudia: Bena -o + -a > -oa & -o + -a > -ua > -ue.<sup>6</sup> Iturria: <https://www.ametx.eus>

San Migelen, Andikara eta Zamalloa baserrikoek , -o + -a > -oa egiten dute, eta Austoako hiztunak bokala igotzen du. Mugatzaile singularrari loturik: *Orrek sokak gerokoak dies* (Andikara), *Ondoan dekogus basooak eta* (Zamalloa), *Elisan onduen* (Austoa). Adizkietan: *Joan gintzesanien* (Andikara), *Oin yoaten die maiatzerarte* (Zamalloa), *Bernara jaidxetara enas juen iños bes* (Austoa).




12. irudia: San Migel -o + -a > -oa & -o + -a > -ua > -ue.<sup>7</sup> Iturria: <https://www.ametx.eus>

<sup>6</sup> Ezkerraldean borobilduta dagoena Goienengoa baserria da, eta eskuinaldekoa Txosna baserria.

<sup>7</sup> Ezkerraldean borobilduta dagoena Andikara da, erdian gorago dagoena Zamalloa eta eskuinaldekoa Austoa.

Gainerako auzoetan,  $-o + -a > -oa$  egiten da: *Aitte antxe ibilikoa san da gu araixe* (San Antonio), *Ta ni tabernatara eroaten* (San Antonio), *Ni emen sorrontsan jaidxo nas* (herrigunea), *Joan san gerrara* (herrigunea), *Kanpoan egon san* (Etxano), *Ara eskolara joaten gañen* (Etxano), *Talok be jateuriesan* (Autzagane), *Joan da etorri* (Autzagane), *Kafia euki seuen bakarrik bisidxo, da eseuen ukin dirurik artzeko* (Boroa), *Beragas yoan san* (Boroa), *Numeroa deko, besterik esebes* (Aldana), *Ni dxoanda nau* (Aldana).



13. irudia:  $-o + -a > -oa$  &  $-o + -a > -ua$ <sup>8</sup>. Iturria: Google Maps


### 3.1.1.3. $a \rightarrow e / \{i/u\}(C)_$

$a \rightarrow e / \{i/u\}(C)_$  araua sistematikoa da eta indar handia dauka auzo guztietan. Hau justifikatzeko, Ulibarrik (2010) *Viva Jesus*-en aztertutako testuinguruak hartuko ditut aintzat.

Artikuluaren indartsu ageri da araua, nahiz eta Boroa eta Aldanaren kasuan zehaztapen batzuk egitea beharrezkoa den. Alde batetik, bokalez amaitutako hitzei artikulu gehitzean, Bernan, San Antonion, San Migelen, herrigunean, Etxanon eta Autzaganen araua betetzen dela ikusten da: *Ostien or soloko astue kargeu* (Berna), *Orduen esan ametitan euskeras eitten koitteue* (San Antonio), *Txabola bat anditxue* (San Migel), *Euskeldun euskeldung san e* (herrigunea), *Titi sabaldue dekola* (Etxano), *Ta soiñue jo* (Autzagane). Boroan eta Aldanan ere araua betetzen da: *Ori arkue olan eindde* (Boroa), *Guk koitteue esaten du* (Aldana); baina, nabarmendu beharra dago  $e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea gertatu den kasuetan, araua ez dela betetzen artikuluaren, ez amaieran artikulu bera dagoenean, ez ondotik kontsonante bat dagoenean. Boroan eta Aldanan, *a.a* eta *e.e* bilkuren emaitzetatik  $-e.a > -i.a$  daukagu; beraz ez dago asimilaziorik: *Estartia*

<sup>8</sup> Zelaietak (1990: 15) *Agria* enpresaren aurrean dagoen etxean jartzen duen muga errespetatu dut, ez baitut kontrakoa adierazten duen frogarik. Marra gorriak Zornotzaren mugak bereizten ditu. Erdetik igarotzen den marra gorriak Ibaizabal ibaia irudikatzen du. Marra zuriak, aldiz, isoglosa kokatzen du.

esaten dxakon sorbidiari (Boroa), *Ermitia be eiren* (Aldana). *Nire aitte be biarrak ariñeketan eitten sittusen musalditxu bet eitteko illuntzian*<sup>9</sup> (Aldana).



14. irudia. (aa) > ea > ia & (aa) > ea > ia > ie. Iturria: Google Maps

Beste alde batetik, -VC\_ testuingurua dugu, betiere artikuluari lotuta. Honetan, auzo guztietan gertatzen da asimilazioa: *Guk emoten doskune ekarten gañun de* (Berna), *Mutillē gorde ein sen* (San Antonio), *Aittittek eindde eukiuen* (San Migel), *Alde andidxe orduen danak giñen lagun lagun da* (herrigunea), *Labrantza andidxe eukin gañun* (Etxano), *Soñularidxe egote san* (Autzagane), *Areri be afaridxe edo beskaridxe edo dxan bisana da fit* (Boroa), *Erromeridxe itzela etorte san* (Aldana).

Bestelako deklinabide marketan ere indartsua da. Artikuluaren gainean eraikitakoak ondorengoak dira: *A egune sera san orduen* (Berna), *Orduen esan ametitan euskeras eitten koitteue* (San Antonio), *Orduen esan egoten eser da* (San Migel), *Alde andidxe orduen danak giñen lagun* (herrigunea), *Markos jaidxo san lekuen* (Etxano), *Esan oingo moduen* (Autzagane), *Orduen dirue agertzen san* (Boroa), *Dana eitten san euskaria orduen* (Aldana). Artikulurik ez dutenak adlatiboko formak ondorengoak dira: *Neu be bai kantiñias ara Solaburure* (Berna), *Bajartu eskero ona errire* (San Antonio), *Dxoan pagasarrire beixekas* (San Migel), *Emeti Donostire goasela* (herrigunea), *Sukarra esaten derien modure* (Etxano), *Andik etorri nintzen ona errire* (Autzagane), *Aixe gusture egon eskero* (Boroa), *Errire bajatzen gintzesan* (Aldana).

Erroetan ere indar biziz betetzen dela islatzen dute ondorengo adibide hauek, toponimian ere ageri baita: *Bilboti eruen ei abien* (Berna), *Aitte antxe ibilikoa san* (San

<sup>9</sup> Asimilazio eza ez da Boroan eta Aldanan berdin gertatzen. Autzaganen deklinabide kasu guztietan ikusten da asimilazio eza. Boroan, aldiz, inesibo eta genitibo kasuetan, asimilazioa gertatzen da: *Da bestiak esueles balidxo familirik ukitteko...* (Boroa), vs. *Jaidxo sanien* (Borora), *Da bestia Serafidxena, beste aistiēna* (Boroa)



Antonio), *Antxe txabolan egon sien lusero* (San Migel), *Euskeldun euskeldune san* (herrigunea), *Gure guresoan da baiño eskola geitxuau* (Etxano), *Akaso igual* *Gernikerantza* (Autzagane), *Urketu ein sen* (Boroa), *Muxiketik*, *Gorosiketik* (Aldana).

Eratorpen-atzizkiei dagokienez, ikusten da -ago atzizkiaren kasuan ez dela araua betetzen: *Lelengo urtetik asitte geidxau* (Berna), *Jaidxo nasenik geidxau* (San Antonio), *Eskolan be batzuk daus trabestxuauak* (San Migel), *Gernikekoak geidxau* (herrigunea), *Ama letxerie isen san eskondu sanetik eta geidxau* (Etxano), *Jente geidxau bisi san* (Autzagane), *Ariñauko andrias be eseuen eukiñ* (Boroa), *Ser esangot ba geidxau* (Aldana). Adizkietako -ta atzizkidunak ondorengoak dira: *Olan jagitte lebadurie* (Berna), *Segun amak selan artute dekon* (San Antonio), *Aittittek eindde eukiuen* (San Migel), *Bier asko eindde esta?* (herrigunea), *Ni nau bautiseute Sornotzako parrokidxen* (Etxano), *Es guk pageute* (Autzagane), *Ori arkue olan eindde* (Boroa), *Au aistute dau* (Aldana).

Hitz biren artean ere gertatzen da asimilazioa tarteka. *Bat* zenbatzailearen kasuan, San Migelen, herrigunean, Etxanon, Boroan eta Aldanan araua betetzen da: *Aittittek eindde eukiuen txabola anditxu bet* (San Migel), *Etxe andi bet egoan arkuekas or* (herrigunea), *Elisien ondoan eskolatxu bet dau* (Etxano), *Etorriko nas beste egun beten* (Boroa), *Amak ipiñi ogi sati bet* (Aldana). San Antonioko eta Autzaganekeo adibideek bariazioa islatzen dute: *Traputxu bat ipintten dosu olan doblete olako traputxu bet* (San Antonio), *Tasatxu batas* (Autzagane), *Apurtxu bet* (Autzagane). (*E*)ta juntagailuarekin ere gertatzen da; hala ere, esan beharra dago herrigunean ez dela egiten: *Danak abitasiñuen oge bi tte* (Berna), *Umiek sainddu te osabie sainddu te danak* (San Antonio), *Oingo moduen gixonakiñ de andrak eta umiek eta* (San Migel), *Galtserdidxek konpondu ta etxeko geusek konpondu ta...* (herrigunea), *Etorri de gero arratzaldien Sugastietara joan da etorri* (Autzagane), *Katxabia artu te txosnara* (Boroa), *Oin danak kotxiak artu de badoaz* (Aldana). Aditz klitikoetan, San Migelen, herrigunean, Etxanon, Boroan eta Aldanan, salbuespenak salbuespen, araua betetzen da: *Erre ein sen* (San Migel), *Oin jentie obeto bisi de* (herrigunea), *Sortsi egunegas edo il sen* (Etxano), *Aittitte bertokoa isin sen* (Boroa), *Nire aitte eskondu sen ogetalau urteas* (Aldana). Bernan, San Antonion eta Autzaganen bariazioa ageri da<sup>10</sup>: *Eskapeu ein bisan amendi* (Berna), *Gero partidu sen*

---

<sup>10</sup> Bariazioa arrazoitzeko hainbat modu daude. Alde batetik, hizketa-erritmoak eragindako bariazioa izan daiteke. Alegia, izan daiteke hiztunak azkar hitz egitean araua betetzea, baina etena egitean araua ez aplikatzea. Beste alde batetik, isoglosaren hurbiltasunaren adierazle ere izan daiteke.

atzera be (Berna), *Olantxik geratu san* (San Antonio), *Mutille gorde ein sen* (San Antonio), *Jente asko bisi san* (Autzagane), *Bakarrik bixi de* (Autzagane).

#### 3.1.1.4. -au- > -eu-

-au- diptongoa -eu- egiteak indar handia du auzootan. Hitz hasieran (toponimoak barne), hitz-erroan eta partizipio-markari loturik gertatzen da.

Hitz hasieran (toponimoak barne): *Eutzaganeraa joan gañen erromeridxera* (Berna), *Ni urrera* (San Antonio), *Eurrerako kontuek Jainkoak dxkakin* (San Migel), *Euso biko etxie isi bier iseuen eta* (herrigunea), *Eusoetako esniek be ekarten dotzisan* (Etxano), *Euso gustidxe* (Autzagane), *Eusoak esteittesan entereu* (Boroa), *Yantzaridxek atzera ta urrera* (Aldana).

Hitz-erroetan: *Arri koskorrak imiñi beleunpien* (Berna), *Montorren geuse bat* (San Antonio), *Txabola anditxu bet ba geusek isitteko* (San Migel), *Estaus geusek aiñ ondo* (herrigunea), *Kantiñek eta beren geusek* (Etxano), *Geubetan be* (Autzagane), *Geusek izitzeko* (Boroa), *Oiñ gastiak geubes dekie fiestia* (Aldana).

Partizipioetan ere -au- > -eu- bilakaera dago: *Kargeu errekeuekas da astokargeuete* etxera (Berna), *Nos olgeu lastana?* (San Migel), *Ori pintte uenak<sup>11</sup>* (herrigunea), *Baten edo bitten soldaduzetik selan geubes etsera allegeu sen* (Boroa), *Gabonetan seiñek andidxau arrapeu ixeten da* (Aldana). San Antonion eta Etxanon partizipioetan -eu- da nagusi: *Trenbidie paseu ta bertan* (San Antonio), *Denpora gitxidxen txarto pareu sen* (Etxano); baina, -au- forma gorde duten adibide bat bildu dut San Antonion, eta bi Etxanon: *Ibiltten nintzen ganauas* (San Antonio), *Sumaukeran ba despistetxuen bat lantzien bein* (Etxano), *Neikoa diru Jaingoikoari eskerrak manejuu serien bidxek* (Etxano).

#### 3.1.1.5. Asimilazio bustidura

Asimilazio bustidura indartsua da auzo guztietan.

*i + n* bilkurak ondorengo emaitzak ditu: *Makiñe bat bider amen be* (Berna), *Ipiñi goidxen* (San Antonio), *Oingo moduen gixonakiñ de andrak eta umiek* (San Migel), *Ipiñi deren pasteleridxe* (herrigunea), *Beren kantiñek eta beren geuzek* (Etxano), *Egon san siñe*

---

<sup>11</sup>Gamidek (2007: 141) azaltzen du -eu- amaieradun formetan, aditz laguntzaileen aurrean diptongoa monoportongatzen duen arau bat dagoela. Hau horren adibide izango litzatela. Hots, -au > -eu > -e bilakaera legoke horren atzean. Zornotzan ohikoa izan arren, esan beharra dago salbuespenak aurki daitezkeela.

bi (Autzagane), *Ariñauko andrias be eseuen eukiñ* (Boroa), *Biarrak ariñeketan eitten sittusen* (Aldana).

*i + l* batzerakoan: *Illek bastante* (Berna), *Mutille gorde ein sen* (San Antonio), *Mutille gu baiño sartxuau* (San Migel), *Aprillen ogeta saspidxen* (herrigunea), *Nire urrunggukoa isen san mutille* (Etxano), *Mutillek mutillekas* (Autzagane), *Illuntzidxen etxera* (Boroa), *Musalditxu bet eitteko illuntzian* (Aldana).

*i + t* batzean: *Itturridxe be an dau egon* (Berna), *Nik estaitt* (San Antonio), *Tabak be danak eskañusen eukitten* (San Migel), *An itteren San Juanetako suek eta* (herrigunea), *Olan eukitte seuela* (Etxano), *Kaittanen egon san eskolie* (Autzagane), *Bat bisitte bikoa* (Boroa), *Biarrak ariñeketan eitten sittusen* (Aldana).

*in* eta *int* emaitzak ere ohikoak dira: *Estakitt ser inddabien* (Berna), *Gari artien ipintteko* (San Antonio), *Aittittek eindde eukiuen txabola anditxu bet* (San Migel), *Bier asko eindde esta?* (herrigunea), *Arrindden, Markos jaidxo san lekuen* (Etxano), *Danok posik ibiltten gintzen jantzan* (Autzagane), *Fregetan da ipintteosten* (Boroa), *Txarrikeridxori urte asko esta eindderela* (Aldana).


#### 3.1.1.6. Joanen adizkietan -i-

Joanen adizkietan -i- agertzen den ikusteko adibide gutxi izan ditut aztertutako grabaketak lehenaldiko kontakizunetan oinarritzen baitira gehienbat. Auzo bakoitzean forma bat lekukotzen da; San Migelen,<sup>12</sup> Etxanon<sup>13</sup> eta Aldanan bi: *Banue nire nebieri diar eitten* (Berna), *Banoa belosidadien katxabias* (San Antonio), *Partidue ikusten goasen* (San Migel), *Nora noien?* (San Migel), *Emeti Donostire goasela* (herrigunea), *Bakisu ser esaten noan* (Etxano), *Esauen \$\$\$ paseleku txarrera doiela* (Etxano), *Oin neskak mutillek moduen igual yoasak* (Autzagane), *Badoa baten gora* (Boroa), *Hi nora ho?* (Aldana), *Da zoaz arantza serera...* (Aldana). Beraz, San Migelen eta Etxanon lekukotzen da -i- analogikoa duen forma.

---

<sup>12</sup> Labovek (1972) behatzailearen paradoxaz esandakoa aintzat hartuz, -i- dakarren forma hobetsiko dut. Izan ere, elkarrizketatzaileak esaldi bat euskaratzeko esaten dio hiztunari, eta egoera komunikatibo aruntetik aldentzen da.

<sup>13</sup> -i- gabeko forma Etxanon jaio zen hiztun batek esandakoa da, baina herrigunera bizitzera joan zen gero. -i- daukan forma Etxanon jaio eta bizitako hiztunak esan du. Arrazoi honengatik hobetsiko dut bigarrena.



15. irudia. Joanen adizkiak *-i-* gabe & *-i-* formadunak. Iturria: Google Maps


### 3.1.1.7. <j>-ren ebakerak

Izenetako eta partizipioetako hitz hasierako <j>-ren kasuan, salbuespenak salbuespen, Bernan, San Antonion, Etxanon eta Autzaganen [x] ahoskera da nagusi; eta Boroan eta Aldanan [j] edota [dž]. San Migeli eta herriguneari dagokienez, hirurak azaltzen dira.

[x] ebakeraren adibideak: *Olan jagitte lebadurie bakixu arrotute* (Berna), *Joaten nintzen amagas plasara* (San Antonio), *Ebakue ta gero joan gintzesanien* (San Migel), *Ara eskolara joaten gañen* (Etxano), *Taloak be jateuriesan* (Autzagane), *Ni emen Sorrontzan jaidxoia nas* (herrigunea).

[j] ebakeraren adibideak honakoak dira: *Armosue eroaten yoaten san bierrera* (San Migel), *Errestasune yoan yat* (herrigunea), *Beragas yoan san Candida* (Boroa), *Basu bet ardauas da yoaten san musaldidxe eitten* (Aldana).

Ondorengoak dira [dž] ebakerari dagozkion adibideak: *Ai koitteue, dxoan gintzesan da...* (San Migel), *Orraixxe dxoaten giñen* (herrigunea), *Da areri be afaridxe edo beskaridxe edo dxan bisana da fit* (Boroa), *Ardidxek dxagoten eta...* (Aldana).



16. irudia. [j] / [dž] & [j] / [dž] / [x] & [x]


### 3.1.1.8. /i + a, e, o/ artean [dž] epentetikoa

*i* eta *a, e, o* bokalen artean *dx* epentesia sistematikoa da auzo guztietan. Morfema-mugetan ondorengo adibideak daude: *Lenau ogidxe be bakixu esan egon da* (Berna), *Ipiñi goidxen* (San Antonio), *Oingo gasteridxe* (San Migel), *Alde andidxe* (herrigunea), *Labrantza andidxe eukin gañun* (Etxano), *Jaidxori kendu dere* (Autzagane), *Arek dekere Gernikatxuen subidxe beien* (Boroa), *Txarrikeridxori urte asko esta eindderela* (Aldana). Hitz-erroan ondorengo adibideak bildu ditut: *Nobidxoa ortxe tope gañun de* (Berna), *Dana baridxoa* (San Antonio), *Nobidxoa edo eukiten zañunien* (San Migel), *Arratidxerantza eitten da asko* (herrigunea), *Markos jaidxo san lekuen* (Etxano), *Oridxoa oiñ igual “por mayor” ekarten dosu* (Autzagane), *Kafia euki seuen bakarrik bisdxoa* (Boroa), *Ni dxoanda nau kridxeda amaika urte orduko* (Aldana).

### 3.1.2. Morfologia

#### 3.1.2.1. Soziatiboko markak

Soziatibo markei helduz, Bernan eta San Migelen *-kin* eta *-akaz* aldaerak daude pluralean: *Beidxekiñ eurreti, beidxek buelteu bestela nañora jueten die beidxek eta* (Berna), *Eutzaganera jun gañen erremeridxera da arek e... arekas an* (Berna), *Eskola sasoien, ba, edo sokiaz edo tabakiñ edo* (San Migel), *Dxoan Pagasarrire beidxekas, beidxek eroan biseten gañusen da* (San Migel). Bernan bilduriko 6 adibideetatik 3 dagozkio aldaera bakoitzari. San Migelen, ordea, *-kin* nagusitzen da, bilduriko 4 adibideetatik 3 baitira forma hori dutenak. San Antonion, bi adibide baino ez ditut bildu, eta biak dira *-kin* aldaeradunak: *Ardidxekin joaten nintzen, Da gero olan eskuekiñ olan sakatu*. Herrigunean, Etxanon, Autzaganen, Boroan eta Aldanan *-akaz* duten formak erabiltzen dira: *Josten da ibilite nau monjetan monjkas* (herrigunea), *Esniekas sortziretan urtetan seuen* (Etxano), *Es Santanatus amen ibiltten dien moduen neskak neskkas ta mutillek mutillekas* (Autzagane), *Geuse bardiñkas, dirualdidxe* (Boroa), *Oin bai erderas urtiak sartuoas neure lagunekas* (Aldana).



17. irudia: -kaz & -kin / -kaz & -kin. Iturria: Google Maps


### 3.1.2.2. Hurbiltze-adlatiboa

Hubiltze-adlatiboari dagokionez, auzo guztietan *-(r)antza* atzizkidun forma darabilteela ikusi dut: *Eskiñera allegetan danien, a goldiek buelteu ein bideu noberak eta gero onantz* (Berna), *Estasiñotik berantz* (San Antonio), *Elisarantz* (San Migel), *Arratidxerantz* (herrigunea), *Begire sererantz Boroarantz* (Boroa), *Etxanorantz* (Etxano), *Berantz oiñes da gorantz* (Autzagane), *Gerniket etorri sien Larrabetzurantz* (Boroa), *A, bai! Ene... Da zoaz arantz serera...* (Aldana).

### 3.1.2.3. \*Edun-en 3. pertsonako NORK pluralgilea

\*Edun-en 3. pertsonako NORK pluralgileari dagokionez, *-e* forma darabilte Bernan: *Arek be tabernie euki abien*. Gainerako auzoetan, *-de* forma lekukotzen da eksklusiboki; forma horren aldaera den *-re*, hain zuzen: *Ume txikidxe euki serien* (San Antonio), *Lenauko koihteuek be seuser, ser konteu eukikorie, eukikorie* (San Migel), *Gero gerran dana apurtueren esta?* (herrigunea), *Gure guresoak firmeu eskuegas eitten serien* (Etxano), *Taloak be jateuriesan* (Autzagane), *Gora Euskadi edo esango seren* (Boroa),<sup>14</sup> *Ermitia be eiren* (Aldana).

<sup>14</sup> Boroan, *eduki* aditzaren trinkoan ere darabilte forma hori: *Arek dekere Gernikatxuen subidxe beien*. Herrigunean eta Aldanan, esaterako, nahiz eta \*edunen 3. Pertsonako pluralgailea beti *-de* izan, *-e* darabilte *eduki*-ren trinkoko formetan: *Beste dejotxu bet dekie* (herrigunea), *Oiñ gastiak geubes dekie fiesta, da lenaukoak egunes eitteren fiesta* (Aldana).



**18. irudia.** *-de & -e.* Iturria: Google maps

### 3.1.3. Zornotzako bariazio diatopikoa: laburpena

	Berna	San Antonio	San Migel	Herrigunea	Etxano	Autzagane	Boroa	Aldana
$e \rightarrow i / \_V$	+	+	+	+	+	+	+	+
$-o + -a$	<i>-ue</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>	<i>-oa</i>
$a \rightarrow e / \{^i/_u\}$ indartsu	+	+	+	+	+	+	+ <sup>15</sup>	+ <sup>16</sup>
$-au- > -eu-$ indartsu	+	+	+	+	+	+	+	+
Asimilazio bustidura indartsu	+	+	+	+	+	+	+	+
Joanen adizkietan <i>-i-</i>	-	-	+	-	+	-	-	-
<j> izen eta partizipioetan	[x]	[x]	[x] [j] [dž]	[x] [j] [dž]	[x]	[x]	[j] [dž]	[j] [dž]
$/i + a, e, o/$ artean epentesia	+	+	+	+	+	+	+	+
Pluraleko sozietibo marka	<i>-akaz -kin</i>	<i>-kin</i>	<i>-akaz -kin</i>	<i>-akaz</i>	<i>-akaz</i>	<i>-akaz</i>	<i>-akaz</i>	<i>-akaz</i>
Hurbiltze adlatiboa: <i>-(r)antza</i>	+	+	+	+	+	+	+	+
* <i>Edun</i> -en NORK 3. p. pluralgilea	<i>-e</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>	<i>-de</i>

1. taula. Zornotzako bariazio diatopikoaren laburpena

<sup>15</sup>  $a.a > -ia$  eta  $e.a > -ia$  absolutibo eta inesibo kasuetan.

<sup>16</sup>  $a.a > -ia$  eta  $e.a > -ia$ .



Zornotzako auzo guztietan daude ondorengo ezaugarriak:  $e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea,  $a \rightarrow e / \{i/u\}$  araua indartsu (nahiz eta hegoaldeko hizkeretan barazioa ageri den zenbait kokagunetan),  $-au- > -eu-$  bilakaera indartsu, asimilazio bustidura indartsua,  $/i + a, e, o/$  artean [dž] epentesia eta  $-(r)antza$  hurbiltze adlatiboa. Nabarmendu behar da, baina, Boroan eta Aldanan  $a.a$  eta  $e.a.$  bilkuretan, aipatutako kasuetan, ez dela  $a \rightarrow e$  asimilaziorik. Ondorengo ezaugarriak Zornotza guztian dira orokorrak, Berna auzoan salbu:  $-o + -a > -oa$  eta  $*edunen$  NORK 3. p.  $-de$  pluralgilea. Esan beharra dago, San Migel auzoaren hegoaldean ere Bernarekiko mugatik hurbil,  $-o + -a > -ua$  gertatzen dela. Ekialdean kokatzen diren San Migel eta Etxano auzoetan, gainerako auzoetan ez bezala, *joanen* adizkietan  $-i-$  daukaten formak lekukotu dira. Azkenik, Zornotzako iparraldea eta hegoaldea banatzen duten ezaugarriak daude: <j> izen eta partizipioetan, eta pluraleko sozietibo marka.

### 3.2. ZORNOTZA VS INGURUKO ESKUALDEAK

Ondorengo lerroetan Zornotzako auzoetan aztertutako ezaugarriak inguruko herri edota eskualdeetan dauden aztertuko da. Era honetan, isoglosak zehaztearekin batera, inguruko eskualdeetako hizkerak auzoetako hizkeran eraginik duten ikusiko da. Txorierriko hizkeraz (eta bereziki Larrabetzukoaz) zer esan den jakiteko Zuazo & Goiti (2016) eta Gaminde et al. (2018) lanak baliatu ditut. Arratiako hizkerari dagokionez, Iglesiasen (2014) tesia baliatu dut: Igorreko hizkera deskribatzen da bertan, baita Arratia barneko aldakortasuna ere. Zornotzaren kokapen lektala azaltzerakoan aipaturiko adituek Lemoa, Dima eta Igorreko hizkerez esandakoa hartu dut aintzat: hiru hizkerok multzo berean sartzen dituztenez, kontrakorik adierazi ezean, Igorreko deskribapenak beste herriak deskribatzeko balio duela onartuko dut. Busturialdeko hizkera aztertzeko Ensunzaren (2009, 2015) eta Derteanoren (1985) lanak hartu ditut aintzat. Azkenik, Durangaldeko hizkeraren deskribapena Erraztiren (1994) lanetik jaso dut, fokua Iurretan jarritz. Esan gabe doa Zuazoren (2017) lana ere erabili dudala aurrekoen osagarri, baliagarria baita sartaldeko eta sortaldeko ohiko ezaugarriak bereizteko.

#### 3.2.1 Fonetika eta fonologia

##### 3.2.1.1. $e \rightarrow i / \_V$ bokal igotzea

Zornotzan bokal igotzea gertatzen da, eta inguruetan ere badago gehienetan, nahiz eta emaitza ez den berbera. Igotzerik ez duen eskualde mugakide bakarra Arratia da:

Iglesiasen (2014: 100) lanean ikusten da Igorren ez dela araua betetzen: *alabea*, *bestea*.<sup>17</sup> Larrabetzun bariazioa ikusten da; hiztun batzuegan bokal igotzea dago, baina beste batzuegan ez, ordea: *alabea/alabia*, *semea/semia* (Gaminde et al. 2018: 90). Zornotzak iparraldean eta ekialdean mugakide dituen eskualdeetan igotzea dago. Ensunzaren (2015: 67) esanetan,  $e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea ohikoa da Busturialdeko herri guztietan: *lusie*,<sup>18</sup> eta Erraztik (1994: 33) Iurretako hizkeran ere gertatzen dela adierazten du: *andrie*, *saltzie*, *aldien*, *atzien*.

### 3.2.1.2. -o + -a > -ua bokal igotzea

Zornotzan erdiko bokalaren igotzea hego-ekialdean gertatzen da, gainerakoan -oa mantendu da. Zornotzarekin muga egiten duten eskualdeetatik, Durangaldeak egiten du igotzea; Erraztiren (1994: 34) esanetan, Iurretako hizkeran gertatzen da: *astue*, *eruen*, *daruet*. Busturialdeko egoera arretaz begiratu beharra dago; izan ere, Busturialdeko herrietan aldakortasuna ikusten da (Ensunza 2015: 67). Lan honetan, Muxikako eta Gernikako helduez esaten denari erreparatuko zaio. Zornotzak mugakide dituen herriotan, -oa<sup>19</sup> mantendu dela azaltzen du Ensunzak: *beroa* (2015: 108). Gainerako eskualdeetan ere, Txorierrin eta Arratian, -oa gorde da. Gamindek et al.-ek (2018: 90) diotenez, Larrabetzun araua betetzen da: *astoa*. Igorren ere -oa gorde dela azaltzen du Iglesiasek (2014: 101): *astoa*, *taloa*.

### 3.2.1.3. $a \rightarrow e / \{^i/_u\}(C)\_$

Ezaugarri honi dagokionez, Zornotzan aldakortasuna dagoela ikusi dugu. Iparraldeko auzoetan -ia forma lekukotzen dela ikusi da, eta gainerakoetan -ie. Alabaina, gainerako testuinguruetan araua iparraldean indartsuagoa dela ikusi da, hegoaldean bariazioa ugariago baitago. Iparraldean mugakide duen Larrabetzu herrian, Bizkaiko sartaldeko alderdi batzuetan legez, bokala jatorriz *e* denean, ez da arau hau gertatzen (Zuazo 2017: 69). Gaminde et al.-en (2018) ikerlaneko adibidea gurera ekarriz, ikusten da adibide honetan ez dagoela  $a \rightarrow e$  bilakabiderik: *semia*. Hala ere, gainerako kasuetan araua indar

<sup>17</sup> Iglesiasek (2014) azentua markatzen du bere adibideetan. Lan honetara adibideak azentua markatu gabe ekarri ditut.

<sup>18</sup> Ensunzaren (2015) lanean *luzie* dakar, baina nik lan honetarako egokitu dut. Hemendik aurrera azalduko diren Ensunzaren (2015) lanetik hartutako adibideak lan honetara egokiturik daudela aintzat hartzea garrantzitsua da.

<sup>19</sup> Ensunzak (2015: 108) dio Muxikan -oa dela nagusi, baina bi hitzetan igotzea gertatzen dela: *karniserue*, *pianue*. Orotariko Euskal Hiztegian *karniseru* eta *pianu* formak lekukotzen direnez, hiztunak -u amaieradun hitza izango balitz bezala hauteman izanagatik sortutako formak direla pentsatzen dut; eta, beraz, Muxikan -oa gorde dela.

handiz gertatzen da (Zuazo 2014: 266): *idie*, *eskue* (Gaminde et al. 2018: 90), *irebasi* (Gaminde et al. 2018: 123), *entzunde* (Gaminde et al. 2018: 122). Arauak indar bertsua du Arratiako hizkeran ere: *negue*, *lagune*, *etorri de*, *errire*, *eskegite* (Iglesias 2014: 101). Busturialdean eta Durangaldean araua indartsu ageri da; baina, aurrekoekin konparatuz, ez da hain indartsua. Muxikan eta Gernikan, *i* bokala jatorriz *e* denean ere gertatzen da asimilazioa (Ensunza 2015: 110): *semie*, *alabie* (Ensunza 2015: 62). Derteanok (1985: 312) bildutako adibideetatik ondorioztatzen da Muxikako auzoa den Ibaruri aldean araua indartsua dela: *pixuen*, *dobleute*; beharrezkoa da, ordea, Ensunzak (2009: 8) egindako zehaztapena gurerara egartzea:

Kasu batzuetan eta, batez ere, elkarren ondoan dauden berba bitan, araua ez da guztiz sistematikoa, hau da, araua ez da betetzen beti: *se ordutan* (*se orduten* espero genuke), *orri bat*, *baina notisi faltsu bet* aurki ditzakegu hiztun berarengan. Gauza bera esan daiteke beste edozein gernikarri dagokionez, beraz, legea indartsua bada ere, ez da beste eskualde batzutan bezain indartsua. (Ensunza 2009:8)

Erraztik (1994: 33-34) Iurretan ere araua indartsua dela adierazten du: *andrie*, *basuetan*. Hala ere, Bizkaiko sortaldeko eskualdea denez, esan beharra dago araua ez dela sartaldean bezain indartsua, zenbait testuingurutan ez baita gertatzen: inesibo pluraleko morfeman edota *bat* zenbatzailean, esaterako (Zuazo 2017: 69).

#### 3.2.1.4. -au- > -eu-

Zornotzan -au- > -eu- bilakaera indartsua dela ikusi da, eta inguruko herrietan ere horrela da, nahiz eta hegoaldean mugakide dituen eskualdeetan (Arratia eta Durangaldea) zehaztapen batzuk egitea beharrezkoa den. Gamindek et al.-ek (2018: 132) jasotako adibideetan, partizipioetan -eu- amaieradunak aurki daitezke Larrabetzun: *agarreu*, *aguanteu*. Hitz erroetan ere aurki daiteke: *yeusko* (Gaminde et al. 2015: 183). Ildo beretik, Muxikan eta Gernikan -au- > -eu- bilakaera gertatu dela azaltzen du Ensunzak (2015: 112): *euntz*, *eurre*, *geuse*. Arratian aldakortasuna dagoela dio Iglesiasek (2014: 98). Zornotzak mugakide duen Lemoa herrian bilakaera gauzatzen da: *eurre*, *eupetz*, *paseu*. Ez, ordea, Diman:



**19. irudia.** Partizipioetako *au* > *eu* bilakaera Arratian. Iturria: Iglesias (2014: 98)

Iurretako hizkeran bariazioa dagoela azaltzen du Erraztik (1994: 30). Izan ere, sarri hiztun berberak *-au* eta *-eu* formak erabiltzen ditu: *austute/eustute*, *gausie/geusie*, *topau/topeu*.

#### 3.2.1.5. Asimilazio bustidura

Zornotza osoan asimilazio bustidura oso indartsua dela argi gelditu da. Zornotzak mendebaldean mugakide dituen herrietan ez da indartsua, bai ordea ekialdekoetan. Zuazo & Goiti-k (2016: 25) Txorierrin asimilazio bustidura ahula dela diote. Ondorengo adibideek islatzen dute esandakoa: *aleginek in dodas* (Gaminde et al. 2015: 128), *loditu esiteko* (Gaminde et al. 2015: 129), *ibili esitia* (Gaminde et al. 2015: 129). Igorreko hizkeran asimilazio bustidura ez da oso indartsua (Iglesias 2014: 104-106). [n] aurrean [j] bokalerdia dagoenean bustidura gertatzen da: *noraño*; [i] bokala dagoenean, ostera, bustidura hautazkoa da: *lengusine* vs. *lengusiñe*. [l] aurrean [j] bokalerdia badago, busti egiten da; baina, [i] bokala dagoenean, normalean ez da gauzatzen: *mutile*. *i + t* batzean, ez da bustitzen: *itea* (Iglesias 2014: 158). Muxikan eta Gernikan asimilazio bustidura oso indartsua da, bertako hiztun helduek *ind* eta *int* bustitzen baitituzte (Ensunza 2015: 178): *badakitt*, *aittitte*, *esinddot*.<sup>20</sup> Erraztik (1994: 37: 50) Iurretako hizkeran *t*, *n*, eta *l* bustitzen direla dio: *aittu*, *Iturburu iños*, *Kristiña*, *mutille*, *illebetien*. Erraztik (1994: 30) lekukotutako adibide honek, gainera, Iurretan araua oso indartsua dela erakusten du: *seiñddu*.

#### 3.2.1.6. Joanen adizkietan *-i-*

Zornotza ekialdeko auzo batzuetan (San Migel eta Etxano) lekukotu da *joanen* adizkietako *-i-*. Zornotzak inguruan dauzkan eskualdeetan *-i-* gabeko formak daude, Durangaldea salbu. Larrabetzun ez da *-i-* rik *joanen* adizkietan: *noa*, *goa*, *doa* (Gaminde et al. 2015: 156). Muxikan eta Gernikan ere *-i-* gabeko formak dira ohikoak: *doa* (Ensunza 2015: 182). Iglesiasek (2014: 127) emandako adibidean ikusten da Igorreko hizkeran ez dela *-i-* tartekatzen: *banoa*. Erraztik (1994: 74) azaltzen duenez, Iurretako hizkerako adibideek ezaugarri honetan bariazioa dagoela islatzen dute. Izan ere, *-i-* gabeko formak nahiz *-i-* daukatenak entzun daitezke: *noie/nue*, *oie/ue*, *soiesie/suesie*.

#### 3.2.1.7. <j>-ren ebakerak

---

<sup>20</sup> Ensunzak (2015: 27) dagokion ezaugarria aztertzeke behatutako hitzak zerrendatzen ditu. Bere ondorioak aintzat hartuz, lan honetan, hiztunak esango lituzkeen eran idatzi dut.

Zornotzako iparraldeko auzoetan [j] eta [dž] ahoskera daude, erdialdean [x] ere lekukotzen da da, eta hegoaldean [x] da nagusi. Zornotzaren mendebaldeko eskualdeetan [j] da ahoskera ohikoa, eta ekialdekoetan [x]. Zuazo & Goiti-k (2016: 25) diotenez, Txorierrin [j] ahoskera dago; Larrabetzuko hiztunengandik jasotako adibide hauek baieztatzen dute hori: *yayoa*, *yoan* (Gaminde et al. 2015: 118). Igorreko hizkeran Iglesiasek (2014: 125) ondorengo adibideak bildu ditu: *yan*, *yagon*, *yo*. Ensunzak (2015: 166) dioenez, Muxikan eta Gernikan [x] ahoskera darabilte hiztunek: *jan*, *josi*. Baita Iurretan ere: *juen*, *Josefiña*<sup>21</sup> (Errazti 1994: 47).

### 3.2.1.8. /i + a, e, o/ artean [dž] epentetikoa

Zornotzako auzo guztietan da ohikoa epentesia, baita Zornotzako ekialdeko eskualdeetan ere. Mendebaldekoetan, aldiz, ez da ohikoa. Larrabetzun ez da /i + a, e, o/ artean epentesirik: *idiek* (Gaminde et al. 2015: 90), *grasiek* (Gaminde et al. 2015: 104). Ezta Igorreko hizkeran ere: *idie*, *errien* (Iglesias 2014: 145). Ensunzak (2015: 66) azaltzen du Busturialdean /i + a, e, o/ artean [dž] epentesia dela ohikoa aztergai dugun adin tartean: *meridxendan*, *radidxoa*.<sup>22</sup> Gamindek (2007: 21) Zornotzatik gertu dauden Durangaldeko herrietan ere /i + a, e, o/ arteko [dž] epentesia dagoela dio: *beskeidxe*, *arpeidxe*.<sup>23</sup>

## 3.2.2. Morfologia

### 3.2.2.1 Soziatiboko markak

Zornotzako iparraldean *-akaz* duten formak baino ez dira lekukotu. Hegoaldean, *-kin* ere agertzen dela ikusi da (San Antonion besterik lekukotu ez delarik). Sartaldean kokatuta dauden eta Zornotzaren mugakide diren eskualdeetan *-akaz* baino ez da ageri. Sortaldekoetan, berriz, bi formak ageri dira. Larrabetzun: *onekas*, *orrekas*, *arekas* (Gaminde et al. 2015: 91). Iglesiasek (2014: 143-144) adierazten duenez, *-akaz* da pluraldeko soziatibo marka Igorren: *semeakas*, *alabakas*. Ensunzaren (2015: 180) arabera, Muxikan eta Gernikan ere *-akaz* dago: *lagunekas*. Derteanoren (1985: 307) zehaztapena gurera ekartzea, ordea, beharrezkoa da. Izan ere, haren esanetan, Ibarruri aldean *-kin* erabiltzen da, eta Gorozikan<sup>24</sup> *-akaz*. Ondorengoak dira Ibarruri aldean bildu dituen adibideak (Derteano 1985: 307): *eurekiñ*, *ganekoekiñ*. Iurretako hizkeraren kasuan,

<sup>21</sup> Erraztik (1994) azentuarekin adierazitako formak azenturik gabe idatziko ditut lan honetan.

<sup>22</sup> Ensunzak (2015: 63) dagokion ezaugarria aztertzeo behatutako hitzak zerrendatzen ditu. Bere ondorioak aintzat hartuz, lan honetan, hiztunak esango lituzkeen eran idatzi dut.

<sup>23</sup> Erraztik (1994: 30-31) bildutako adibideak dira. Epentesia <y> bidez adierazten du.

<sup>24</sup> Gorozika ere Muxikako auzoa da.

-akaz dela adierazten du Erraztik (1994: 61): *neskakas*, *txakurrokas*. Hala ere, nabarmentzen du *-kin* ere entzun daitekeela.

### 3.2.2.2. Hurbiltze-adlatiboa

Zornotza osoan *-(r)antza* forma lekukotzen da, baita Zornotza inguratzen duten herrietan ere. Larrabetzun: *etzetarantza*, *errirantza*, *basorantza* (Gaminde et al. 2015: 109). Derteanoren (1985: 320) arabera, Muxikako Ibarruri auzoak *-rantza* darabilte: *errirantza*. Gernikan ere, ere *-rantza* darabilte: *etxerantza* (Ensunza 2009: 10). Igorreko hizkeran ere *-(r)antza*: *plasarantza* (Igelsias 2014: 143). Iurretan ere berdin: *gastiekanantza*, *kortetarantza* (Errazti 1994: 70).

### 3.2.2.3. \*Edun-en 3. pertsonako NORK pluralgilea

Zornotzan *-de* morfema da nagusi, Berna (hego-ekialdeko auzoa) salbuespen delarik. Mendebaldean dituen eskualdeetan ere *-de* dago, eta *-e* ekialdekoetan. Ondorengo taulan, Gaminde et al.-ek (2015: 141) Larrabetzun ohikoak diren 5 aldaera bildu dituzte, eta beti da *-de*.

	1. belaunaldia	2. belaunaldia	3. belaunaldia
<b>Andrazkoak</b>	deure, deurie	deurie, daurie, deurie, dere	deure
<b>Gizonezkoak</b>	deure, deurie	deure, deurie	deure, deurie

2. taula. Larrabetzuko \**edun*-en 3. pertsonako NORK pluralgilea. Iturria: (Gaminde et al. 2015: 141)

Igorreko hizkeran, *-de* duten ondorengo formak lekukotu ditu Iglesiasek (2014: 231): *deure/deurie*. Derteanok (1985: 310) lekukoturiko *eben* forma aintzat hartuz, esan beharra dago Ibarruri aldean *-e* dela \**edun*-en NORK 3. pertsonako pluralgilea. Ensunzak (2009: 12) dioenez, Gernikaren kasuan, *-e* morfema da: *dabe*. Erraztik (1994: 83) emandako adibideetatik ondorioztatzen da Iurretako hizkeran *-e* morfema dela: *dabe/dabie*, *dabes/dabies*.

### 3.2.3. Zornotza inguruko eskualdeen bariazio diatopikoa: laburpena

	Larrabetzu	Muxika eta Gernika	Igorre	Iurreta
$e \rightarrow i / \_V$	+ / -	+	-	+
<i>-o + -a</i>	+	+	+	-
$a \rightarrow e / \{i/u\}$ indartsu	+ <sup>25</sup>	Ez oso indartsu	+	Ez oso indartsu
<i>-au- &gt; -eu-</i> indartsu	+	+	+ / -	+ / -
Asimilazio bustidura indartsu	-	+	-	+
Joanen adizkietan <i>-i-</i>	-	-	-	+ / -
<j> izen eta partizipioetan	[j]	[x]	[j]	[x]
<i>/i + a, e, o/</i> artean epentesia	-	+	-	+
Pluraleko soziatibo marka	<i>-akaz</i>	<i>-kin / -akaz</i>	<i>-akaz</i>	<i>-kin / -akaz</i>
Hurbiltze adlatiboa: <i>-(r)antza</i>	+	+	+	+
* <i>Edun</i> -en NORK 3.p. pluralgilea	<i>-de</i>	<i>-e</i>	<i>-de</i>	<i>-e</i>

3. taula. Zornotza inguruko eskualdeen bariazio diatopikoaren laburpena


<sup>25</sup> Jatorriz *i* ez denean *-ia*.

Zornotzak mugakide dituen herriok duten ezaugarri komun bakarra  $-(r)antz$ a hurbiltze adlatiboa da. *Joanen* adizkietan *-i-* gabeko formak denetan lekukotzen dira, baina ezin da ahaztu Iurretan *-i-* dakartenak ere lekukotzen direla.  $-o + -a > -ua$  bokal igotzea ere Iurretan soilik gertatzen da. Ondorengo alderdietan ikusten da Txorierrik eta Arratiak bat egiten dutela, baita Busturialdeak eta Durangaldeak ere:  $a \rightarrow e / \{i/u\}$  arauaren indarrean, asimilazio bustiduraren indarrean, izen eta partizipioetako  $\langle j \rangle$ -ren ahoskeran,  $/i + a, e, o/$  arteko epentesian, pluraleko sozietibo markan (bietan dago *-kin*) eta *\*edun*-en NORK 3. p. pluralgilean. Ezin da multzo honetan sartu  $e \rightarrow i / \_V$  bokal igotzea, Larrabetzun bi formak lekukotzen baitira. Azkenik,  $-au- > -eu-$  bilakaera arretaz begiratu behar da; izan ere, mugakide duen Lemoa herrian gertatzen da, Diman ez da ohikoa eta Iurretan bi formak lekukotzen dira.

Hurbiltze adlatiboari dagokion isoglosa ez da Zornotza inguruan kokatzen. Zornotzako auzo guztiek partekatzen dituzten ezaugarrietatik, Busturialdearekiko eta Durangaldearekiko lotura erakusten dute hurrengoek: asimilazio bustiduraren indar handiak eta  $/i + a, e, o/$  arteko epentesiak.  $-au- > -eu-$  bilakaerari dagokionez, ondorioztatzen da isoglosak ez duela Zornotza zeharkatzen. Isoglosaren alde batean geldituko litzateke Zornotza, eta bestean Dima.  $e \rightarrow i / \_V$  ezaugarriaren kasuan, Zornotzako auzo guztiak Durangaldearekin eta Busturialdearekin lotzen dira (Larrabetzurekin ere lotu daiteke, bi formak lekukotzen direla gogoraturaz), baina ez mendebalderagoko Arratiarekin. Hauteman daitekeenez, auzoen arteko aldakortasuna dago, eta zenbait ezaugarritan, auzo bakoitzak inguruko eskualdeekin ezaugarriak partekatzen ditu. Hasteko, hego-ekialdean (Berna inguruan) dauden isoglosak zehaztea komeni da:  $-o + -a > -ua$  bokal igotzearena (Durangaldearekin bat eginez) eta *\*edun*-en NORK 3. p. *-e* pluralgilea (Busturialdearekin eta Durangaldearekin batera). Ondorengo ezaugarriek Zornotza erditik banatzen dute:  $\langle j \rangle$ -ren ahoskera eta pluraleko sozietibo marka. Lehenengoari dagokionez, esan beharra dago erdialdeko gunean (San Migelen eta herrigunean), bariazioa ageri dela; baina, gogoratu beharra dago isoglosak ez direla ezaugarri baten amaiera eta hasiera markatzen duten lerro gotorrak. Isoglosa hauen kokapena desberdina izan arren, garrantzitsua da aipatzea ezaugarriotan iparraldeko hizkerek Txorierrrekin eta Arratiarekin egiten dutela bat, eta hegoaldekoek Busturialdearekin eta Durangaldearekin.  $a \rightarrow e / \{i/u\}$  arauaren kasuan, zehaztapenak egin behar dira. Oro har, Zornotzako auzo guztietan da indartsua. Hala ere, iparraldearen eta hegoaldearen arteko desberdintasuna nabaritzen da. Datu gehiago beharko lirateke



aurkitutako salbuespenak arrazoitzeko. Ikerketa honetako datuekin, beraz, ezin da isoglosarik zehaztu. Bokala jatorriz *i* ez denean, ikusi denez, Boroan eta Aldanan ez da araua beti gertatzen. Honetan, beraz, Larrabetzurekin egiten dute bat. Horrez gain, Durangaldearekiko mugatik gertu, eta ezaugarri honi dagokion isoglosatik gertu aldi berean, bariazioa ageri dela ikusi da. Bukatzeko, Zornotza ezker-eskuin banatzen duen isoglosa bat dago: *joanen* adizkietako *-i-* ezaugarriarena. Honek San Migel eta Etxano Durangaldearekin lotzen ditu.



20. irudia. Laburpena.<sup>26</sup> Iturria: Google Maps

#### 4. EZTABAIDARAKO GAIK ETA ONDORIOAK

Azterketa honetan zenbait isoglosak Zornotza zeharkatzen dutela ikusi da, auzoen arteko aldakortasuna frogatuz. Argi gelditu da inguruko eskualdeetako hizkeren arteko desberdintasuna nabaria dela, aztertutako ezaugarriari erreparatuz betiere; eta honek Zornotzako auzoetako hizkeren aldakortasunean eragina duela. Honez gain, isoglosak marra gotorrak ez direla ere agerian utzi du azterketak. Izan ere,  $a \rightarrow e / \{i/u\}$  arauan edota partizipioetako eta izenetako <j>-ren ahoskeretan hautematen den bariazioak ondo islatzen du hori.

<sup>26</sup> Gogoratu beharra dago marra gorriek Zornotzaren mugak eta Ibaizabal ibaiaren kokapena irudikatzen dituztela. Aurreko mapetan agertzen diren isoglosen batura islatzen da mapan, baita hauek ondoko eskualdeetara hartzen duten norabidea ere. Inguruko eskualdeetako hizkeretan, zenbait ezaugarritan bariazioa ageri da, eta isoglosak markatzerakoan forma baten alde egin behar izan dut. Esan behar dut berrikuntzaren alde egin dudala; hau da, pentsatu dut berrikuntza, neurri batean bederen hedatu bada, forma hori dutenekin batera kokatzea isoglosaren alde batean.

Ondoriozta daiteke Zornotzako iparraldeko auzoak linguistikoki hurbilago daudela sartaldeko hizkera mugakideetatik, eta hegoaldekoak sartaldekoetatik. Nabarmentzekoa da Berna inguruak (hego-ekialdean) lotura handia duela Durangaldearekin, gainerakoekin alderatuz betiere. Iparraldeko auzoetan ere Boroak eta Aldanak Larrabetzurekiko hurbiltasuna islatzen dute.

Zornotza bere osotasunean hartuz, hots, auzoek partekatzen dituzten ezaugarriak erreparatuz, sartaldearekiko hurbiltasun handiagoa duela ondoriozta daiteke. Aztergai harturiko ezaugarrietan sistematiko eta eskusiboak sartaldearekin lotzen dute Zornotzako hizkera; ondorengoak dira ezaugarri horiek: sozietibo pluraleko marka, \**edunen* NORK 3. p. pluralgilea. Ezin da ukatu, baina, sartaldearekin duen lotura; izan ere, bigarren mailan jarri ditudan ezaugarri hauek frogatzen dute adierazitakoa:<sup>27</sup>  $e \rightarrow i / \_V$ ,  $-o + -a$  baturaren emaitzak, asimilazio bustidura, <j>-ren ahoskera eta  $/i + a, e, o/$  arteko epenesia. Garrantzi txikiagoa aitortu diet gainerako ezaugarriak<sup>28</sup> ez baitira aurrekoak bezain sistematikoak; eta, beraz, kasu honetan ez ditut aintzat hartu.

Azterketa hau hasiera baino ez da, oraindik ere asko baitago aztertzeko. Inguruko hizkeren eraginarekin arazoitu da aldakortasuna kasu honetan. Jakina da, baina, aldagai askok eragiten dutela hizkeran. Etorkizuneko ikerketetan, beraz, hiztunen hartu-emanak, hizkera estandarren eragina eta beste hainbat aldagai azter daitezkeelakoan nago. Ildo beretik, zenbait faktore aintzat hartuz (kultura-maila, adina...), hiztunek ezaugarri hauek nola egiten dituzten ere azter daiteke. Honetaz guztiaz gain, jakina, hiztun edota ezaugarri gehiago aztergai hartuz osa daiteke azterketa hau. Kontuan izan behar da, *joanen* adizkietako *-i-* ezaugarria aztertzeko corpus mugatua izan dudala. Beraz, ondorengo ikerketetan ezaugarria arreta handiagoz azter daiteke. Hau guztia eginez, ezaugarriak hartzen duten hedadura hobeto ikusi eta azaldu ahalko da; bereziki, bariazioa duten zenbait ezaugarriena.

---

<sup>27</sup> Bigarren mailan jarri ditut, sistematikoak izan arren, ez baitira eskusiboak eta aurrekoek baino eremu txikiagoa hartzen baitute.

<sup>28</sup> Adierazi behar dut,  $a \rightarrow e / \{i/u\}$  ezaugarria ezarri ditudan hiru maila horietako tarteko eremu batean kokatu dudala; bigarrenaren eta hirugarrenaren artean. Izan ere, hizketa-eritmoari lotutako salbuespenak aurki daitezke; beraz, ez da bigarren mailan multzokaturiko ezaugarriak bezain fidagarria.

## 5. BIBLIOGRAFIA

### 5.1. Bibliografia

- Aurrekoetxea, G. 1995. *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, G. 2006. Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak. *ASJU*, 40(1/2), 133-160.
- Aurrekoetxea, Gotzon. 1997. Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak. *Uztaro*, 23, 87-94.
- Bonaparte, L. L. 1863-1869. *Carte des sept provinces basques montrant la delimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et varietes*. Standford's Geographical Establishment, London. [Berrarg. [1990], in *Opera Omnia Vasconice Bilbo: Euskaltzaindia*].
- Camino, I. 2004. Irizpide teoriko-metodologikoak egungo euskal dialektologian. *Euskera*, 49(1), 67-102.
- Camino, I. 2008. Dialektologiaren alderdi kronologikoaz. *Fontes Linguae Vasconum*, 108, 209-247.
- Camino, I. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Coseriu, E., 1957, «La geografía lingüística», in id, *El hombre y su lenguaje*. Gredos: Madril, 103-158.
- Derteano, J. L. 1985. Zornotza-Ibarruri aldeko deklinabidearen erabilera. *Litterae Vasconicae*, 3, 293-325.
- Ensunza, A. 2009. *Gernikako euskararen azterketa dialektologikoa*, Artxiker: <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00698800> [Kontsulta-data: 2021/04/10].
- Ensunza, A. 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: UPV/EHU.
- Errazti, A. 1994. *Iurreta Elizateko euskara eta toponimia*. Iurreta: Iurretako Udala.
- Etxebarria, J. M. 2009. *Amorebieta-Etxanoko hiztegi etnografikoa*. Amorebieta-Etxanoko Udala. Baliabide elektronikoa: <http://hiztegia.ametx.net/> [Kontsulta-data: 2021/04/10].

- Francis, W. N. 1983. *Dialectology. An Introduction*. Londres & New York: Longman.
- Gaminde, I. 2007. *Bizkaian zehar. Euskararen ikuspegi orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultur Alkartea.
- Gaminde, I., Olalde, A., Etxebarria, A., Eguskiza, N., Gaminde, U. 2018. *Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzun*. Larrabetzu: Larrabetzuko Udala.
- Hualde, J. I. 1991. *Basque Phonology*. London: Routledge.
- Iglesias, A. 2014. *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHU.
- Labov, W. 1972. *Sociolinguistic patterns*. Philadelphia: Philadelphia University Press.
- Monreal, G. 1973. El Señorío de Vizcaya. *Anuario de historia del derecho español*, 43, 113-206. Baliabide elektronikoa: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1252597> [Kontsulta data: 2021/05/05].
- Sesmero, E. 1993. *Bizkaiko herrien monografiak: Amorebieta/Etxano*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ulibarri, K. 2010. *Viva Jesus* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU*, 44(2), 41-154.
- Veny, J. 1992. Fronteras y áreas dialectales. In Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (arg.), *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak* (197-245. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Yrizar, P. 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*. Bilbo: Euskaltzaindia & BBK.
- Zelaieta, L. M. 1990. *Zornotzako aditz-eren karinkara*. Zornotza: Zornotzako Udala.
- Zuazo, K. & Goiti, U. 2016. *Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara*. Bilbo: UPV/EHU.
- Zuazo, K. 1998. Euskalkiak, gaur. *Fontes Linguae Vasconum*, 78, 191-234.
- Zuazo, K. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
- Zuloaga, E. 2016. Bizkaiko euskararen barne-egituraz: sartaldea eta sortaldea. *ASJUn* argitaratzeko.

## 5.2. Webguneak

<http://euskalkiak.eus/ezaugarriak.php> [Kontsulta-data: 2021/02/20].

<http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=orriak&zo=58> [Kontsulta-data: 2021/03/17].

<https://ahotsak.eus/amorebieta-etxano/> [Kontsulta-data: 2021/04/20].

<https://amorebieta.com/euskararen-erabilera-zornotzan/> [Kontsulta-data: 2021/03/17].

[https://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:BIZKAIA\\_\(Municipios\\_y\\_comarcas\).png](https://es.wikipedia.org/wiki/Archivo:BIZKAIA_(Municipios_y_comarcas).png)  
[Kontsulta-data: 2021/03/20].

<https://www.ametx.eus/eu/aurkezpena/gure-produkzioa/toponimia/mapa> [Kontsulta-data: 2021/01/25].

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu) [Kontsulta-data: 2021/02/20].

[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu) [Kontsulta-data: 2021/05/01].

## 6. ERANSKINAK

### 1027. Mapa: -a + a (-a bukaera + absolutibo singularra)

GALDERA: 86010



	alabara
	al(h)abá
	al(h)ába
	alába
	alabéa
	alabéi
	alabé
	alabú
	alabjá
	alabiá
	albiá
	alábje
	alábje
	alábje
	alábje
	alábje
	alábje
	alábje

- Deklinabide kasu hau ("a" amaier duen hitzen absolutibo singularra) aztertzeko erantzutan maizen erabili den hitza "alaba" izan denez, hiz hori erabili da maparako lematizazioarako oinarri gisa. Bestelako hitzak erabili direnean ere "alaba" lema erabiliz lematizatu dira. Molde hau erabili da deklinabide osoan.

- Lematizazioa egitean aru morfonologikoak hartu dira kontuan; hots hitzaren azken bokalaren eta absolutibo singularreko markaren artean sortzen diren epokitzapenak. Azentuaren kokapena ere kontuan hartu da.

- Mapa txikia "-a" bukaera duten hitzei "-a" mugatzailea eranstean sortzen diren aru morfonologikoen arabera eraiki da, lau multzo nagusi bereiziz: "-a", "-ia/-ie/-i", "-ea/-e" eta "-ara".

**Bermeo:** *alaba* erantzuna baliteke testuingunak ("nire alaba") baldintzatutako erantzuna izatea. 86030 galderen "alabte" erantzuna jaso da.

**Elgoibar:** *kaska* eta *serria* erantzunak "alaba" superlema ezarri dira. Aldiz, *illéria*, *goixógia*, *iróngia* eta *benidria* "alabiá" superlema.

**Donamaria:** *bonariya* ere jaso da.

**Jaurrieta:** *ditara* erantzuna "alabara" superlema ezarri da.

**Larrañe:** *maidá* eta *kharrká* erantzunak "alhábá" superlema ezarri dira.

1. eranskina. EHHako 1027. mapa

### 1067. Mapa: -o + a (-o bukaera + absolutibo singularra)

GALDERA: 86410



	astoa
	asto
	lepoó
	astua
	astuc
	astwe
	astwa
	astu
	xilúu
	otoía

- Erantzunak biltzeko maizen ondoko esaldia erabili da: "Tu burro está delante de la puerta / ton âne est devant la porte".

- Lematizazioarako "asto" hitza erabili da. Salbuespenatzat *xilúu*, *lepoó* eta *otoía* erabili dira superlema gisa, kasu berezi bezala.

- Mapa txikian bi irizpide jarraitu dira: a) silaba kopurua (bi silaba ala hirutan ahoskatu den); eta b) azentuaren kokapena (lehen, bigarren ala hirugarren silaban den).

**Goizueta:** lau erantzun bildu dira eta hauen artean hiru bukaera desberdin: "-oa", "-oo" eta "o".

**Sunbilla:** erantzun gain, mugatu singularra bi modutara jaso da: *espaznen ondúu do gorringu...*

**Larrañe:** *Gizon bizarbeltz, etxen sua* [so + -a] *beltz* [esaena].

**Eskiula:** bigarren erantzunean *otoía* jaso da.

2. eranskina. EHHako 1067. mapa

